

# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a / 726. zenbakia

**MUGIKORTASUN IRAUNKORRA/** Bizikleten erabilera bultzatzeko ekimena

## Bizikletendako aparkalekuak ipintzeko proposamena egin dute

UBANE MADERA

Udaleko Ingurumen Sailak egin du proposamena, mugikortasun iraunkorraren bidean bizikleten erabilera bultzatu nahian. Besteak beste, proposatu dute eskola inguruetan eta industrialdeetan ipintzea halakoak, bizikletak gehien erabiltzen diren tokietan, alegia.

Azken urtean ahalegin berezia egin du Udaleko Ingurumen Sailak herrian bizikletaren erabilera bultzatzeko: bizikleten bigarren eskuko azoka, bidegorriak bultzatzea... Bide horretan, eta herriko zenbait ikastetxe eta lehenagoko urteetan egindako eskaerekin bat eginez, bizikletendako aparkalekuak ipintzea proposatu dio Ingurumen Sailak Udalari. Herriko lekurik egokienak aztertzen ibili dira horretarako. Hala, besteak beste, ikastetxeetatik gertu (unibertsitateetatik gertu, esaterako), industrialdeetan edo herriaren erdigunean (Seberren) ipintzea egoki litzatekeela uste dute Ingurumenekoek; betiere hori egitea bideragarria bada behar teknikoekin eta lekuaren ezaugarriekin. Jakinarazitakoaren arabera, proiektua Udaleko talde politiko guztiei aurkeztu diete baina oraindik osoko batzarrak onespina eman behar dio eta gero, jendarean ipini beharko dute, alegiazioak batzeko. Gainera, Ingurumen Sailaren asmoa da proiektua lantzen hasi aurretik, herritarrek izan ditzaketen proposamenak ere



Hasteko, proposatu dute herriko erdigunean eta eskoletatik eta industrialdeetatik gertu ipintzea aparkalekuak.

batzea, ahalik eta proiekturik osoena izan dadin. Proposamenen bat duenak Udaleko webgunbera jo dezake edo telefonoz deitu.

### MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

Hori guztiori, lehen esandako moduan, Arrasaten mugikorta-

sun iraunkorra ezartzeko bidearen beste pauso bat da.

Horren harira, jakinarazi digute Arrasaterako Mugikortasun Plana egin eta aurkeztu egin duela Intra enpresa katalanak. Hain zuzen ere, datorren hilaren 19an (astelehena) osoko bilkura

berezia egingo dute plan horri udalbatzarrak onespina eman diezaion. Aduak etorriko dira azalpenak ematera. Eta Arrasaten daudela aprobetxatuta, egun berean, arratsaldean, interesa duten herritarrei ere aurkeztuko diete Mugikortasun Plana.

## Alderantzizko 'U' itxurako aparkalekuak aukeratu dituzte

Arrasaten ipini gura dituzten aparkalekuak alderantzizko U itxura izango dute. Esaterako, Bartzelonan eta Kordoban erabiltzen duten sistema bera da. Erabiltzaileen esanetan, U itxurako aparkaleku horiek dira eta seguruena eta egokienak, besteak beste, bizikletak errubertatik zein koadrotik lotu ahal dira-eta.

Egitasmo horretan, herriko zenbait gune aukeratu dituzte halako aparkalekuak ipintzeko, beharren arabera. Baina horrekin batera,

jakinarazi digute kontuan hartu dutela, baita ere, beste zenbait guntan, halako aparkalekuak ipini barik, bizikletak aparkatzeko aukerak badaudela; esaterako, Laubide plazan kale-argien bueltan edo barandan posible da bizikletak uztea, horrenbestez, ez dute aurreikusten aparkalekurik ipintzea.

Bestalde, bizikleta kontuekin segituz, Mugikortasun Planaren barruan, Arrasaterako bidegorri azpiegitura ere aurkeztuko dute.



Argazkikoa baino sistema seguruagoa ipiniko dute. nz

### LABUR

#### Oinezkoendako irteera berria egiten dabilta

Araudi berrira egokitzeko helburuarekin, Laubide aparkalekuan oinezkoendako irteera berria egiten dabil Udala Laubideko bidegurutzerantz aterako da irteera berria. Hirigintza Saileko buru Juan Antonio Urdangarinek jakinarazi digunez, aparkalekuak irteera bakarra du orain eta beste baten beharra zuen; halaber, jakinarazi digu, besteak beste, igogailua ipiniko dutela irteera horretan.

Aurreikusitakoaren arabera, irailean bukatuko dituzte lan horiek, baina egokitzapen lan txikiago batzuk egin beharko dituzte aurrerago.

Obrak egin ahal izateko, tarteka zenbait aparkaleku ixten dabilta, Hirigintzako buruak argitu digunez, parking osoa itxi behar ez izateko dabilta horrela lanean.

#### Milio bat euro pasatxo Kutzaren lokalarengatik

Ia 1.200.000 euro ordainduko ditu Udalak Kutzak Portaloian duen lokalarengatik. Halaxe adostu dute bi aldeek. Herritarrendako arreta bulegoa ipiniko dute han, besteak beste. Inazio Lakuntza alkateak jakinarazi digunez, Edurne Muxika izango da bulegoaren arduraduna. Gainerako xehetasunak ikasturte politiko berrian zehaztuko dituzte.

#### Telefonogune berria ipiniko dute udaletxean

Uztailean udaletxeko telefonogunea matxuratu egin zen hiru bat egunean; horren ondorioz, zenbait herritarrek ez zuten lortu udaletxekoekin telefonoz komunikatzea. Telefonogunea zaharkituta geratu delako gertatu zen hori. Gauzak horrela, Udalak lehia-keta mugatua deitu du, telefonogune berria ipintzeko. Bederatzi eskaintza jaso dituzte eta horietatik bosti eskaintza definitiboa egiteko eskatuko die Udalak.





Bestelakoen artean, Gautxori ingurutik elizara eta kanposantura joateko bide egokia eskatu dute auzotarrek.

GIZARTEA/ Uribarritarrak kezkatuta daude auzoaren etorkizunarekin

## Baserri auzoa desagertzeko zorian dagoela-eta, kezka

UBANE MADERA

Bestetan moduan, uribarritarrek auzoko jaiak aprobetxatu dituzte auzoaren gainean berba egiteko. Iaz, baserrien gida kaleratu zuten; aurten, berriz, auzotarrek dituzten kezka batzuk argitaratu dituzte. Besteak beste, eraikin historikoak desagertzear daudela diote.

Hala adierazi zuten auzoko ordezkariak Arrasate Irratian. Bestelakoen artean, Jone Bergaretxe auzo alkateak baserriak desagertzear dabilzala-eta kezka azaldu zuen: "Orain 30 urte, kaleko etxe-

ak eta baserriak kontaktzen, 60 bat zeuden; orain, berriz, 28 daude". Horri gehitu behar zaio, gainera, oraingo gazteak baserriak utzi eta kalera jaisten direla bizitzera.

### ITURRIAK ETA ZUBIAK

Baita ere salatu zuen oso zaharrak eta balio historikoa duten auzoko zenbait eraikin desagertzear daudela; iturriak, zubi bat eta *Barrenatxo* errota, esaterako. Zubiaren kasuan, *Mendiazpi* izenekoa, 300 bat urte dituela adierazi zuen, eta hura egiteko harriak Elorriotik ekarri zituztela gurdiekin: "Dauka estruktura oso zaharra, harriak ere oso zaharrak dira; bere egu-

nean Kapirixok egin zuen zubiaren historia. Eta auzoan ez dira geratzen gauza asko salbatzeko". Olandixoko tunela egiteko bota behar dute, baina auzotarrek proposatzen dute lekuz aldatzea metro batzuk eta bere horretan uztea.

*Barrenatxo* errota kasua bestelakoa da (500 urte baino gehiago ditu). Orain hiru urte Udalak hura berritzea onartu bazuen ere, jaustear dago eta auzotarren susmoa da Polmetasa eraikitzeke hura bota egingo dutela. Bukatzeko, auzoan ibiltzen diren motor txikien zaratak eta auzoko obren ondorioz sortzen den hautsa ere salatu dituzte auzotarrek, besteak beste.



### Veranoskiren sari nagusia, Arrasatera

Nuria Alcaide 24 urteko makatzenarrari tokatu zaio Hiper Eroskin zozketatu duten Suzuki Swift automobila. Eroskik udan egiten duen Veranoski lehiaketan irabazi du: "Oso pozik nago; ez nuen espero, jokatzan nuen lehen aldian izan da-eta". Lau txartel besterik ez zuela bete esan digu. Gidatzeko baimena ateratzen dabilela ere kontatu digu eta dagoeneko baduela bigarren eskuko auto bat; hala, irabazitako autoa saldu egingo duela esan digu: "Gastuak ordaintzeko erabiliko dut dirua". /U.M.

## LABUR

### Zaborrak batzeagatik eta ur eta saneamendu zerbitzuengatik zergak ordaintzeko epea

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dutenez, zenbait udal zerga ordaintzeko epea zabaldu du Arrasateko Udalak. Hain justu ere, 2005eko bigarren seihileko zergak dira, zaborrak batzeagatik eta ura eta saneamendu zerbitzuengatik ordaindu beharrekoak. Orain, borondatezko epea zabaldu du Udalak, urriaren 15era arte. Data hori baino lehen zergak ordaindu ezean, betiko moduan %20ko gainkarguaz kobratuko dituzte.

### Garabiak batutako ibilgailuak lagatzeko biltegia aldatu egin behar du Udalak

Orain arte Gelma lantegiaren lursailetan gordetzen zituzten kalean gaizki aparkatuta egoteagatik eramandako ibilgailuak. Baina Gelma botatzen dabilzala-eta, lekuz aldatu beharko dute biltegi hori: hain justu ere, Mankomunitateak Nafarroa etorbidean duen lokalean ipiniko dute biltegi berria. Eta horretarako, han dagoen aparkalekuaren zati bat egokitu beharko dute. Bide horretan, egokitze lanak egiteko kontratazio prozedurari ekingo diote eta aurreikusitakoaren arabera, lanak irailaren bukaeran edo urriaren hasieran hasiko dituzte. 37.165,65 euroko aurrekontua zehaztu dute lanok egiteko.

### Autoen mantentze lanak egiteko Markuleteko gunean obrak egiteko partida handitu dute

Besteak beste, Markuleteko mantentze lanen gunean dagoen kontaminazio maila aztertu gura du Udalak. Han botatzen diren materialak asko osasunerako arriskutsuak direla-eta, lan hori bi enpresaren artean egitea proposatu du Garapen Estrategikoko Sailak: EKONOR eta Construcciones Mariezcurrena. Horretarako, 12.000 euroko inbertsioa egin beharko dute.



Eguaztenean dezente aurreratuta zituzten gizonezkoen aldageletako lanak.

### Sauna eta aldagelak itxita, zorua berritzen dabilzala-eta

U.M.

Igerilekuko aldageletako eta hirugarren solairuko zorua konpontzen dabilzala egunotan. Zestoako bainuetxean eta Azpeitiko igerilekuetan izan dira udal teknikariak, zorurako material egokienak ikusten.

Igerilekuetako aldageletan jende dezente jausi da behin baino gehiagotan; zorua busti eta xaboiarekin estaltzen denean, oso labainkor bihurtzen delako. Udala behin baino gehiagotan ahalegindu da arazoa konpontzen, baina ez ditu emaitza egokiak lortu. Hala, Zestoako bai-

nuetxea eta Azpeitiko igerilekuak ikusten ibili ostean, han erabiltzen duten material bera ipintzea erabaki du Udalak, ustez eraginkorra delako.

### SAUNA-ETA ITXITA

Joan den astean hasi ziren zori berria ipintzen. Horretarako, gizonezkoen aldagelak eta hirugarren pisuko zerbitzuak (sauna eta bainu turkiarrak, besteak beste) itxi egin behar izan dituzte. Oraingo astean, berriz, gizonezkoen aldageletako lanak bukatu eta emakumezkoen aldagelekin hasi dira. Aurreikusitakoaren arabera, irailaren 12rako bukatuko dituzte lanak.



# Berriak inauguratu, zaharrak bota eta lehenagokoak egokitze lanak hasi dituzte

U.M.

Oporretan izan garen bitartean, Arrasaten izan dira gertatzen zenbait. Laburbilduz eta batzuk nabarmentzekotan, gogora ekarri beharra dago autobideko zatia eta anbulatorioa inauguratu zituztela eta Maalako okindegia eta torlojugintzako fabrika zaharra eraitsi egin dituztela, besteak beste.


Hain justu ere, uztailearen 28an inauguratu zuten Arrasateko anbulatorioa, han berritze lanak egin eta gero. Besteak beste, Jaur-laritzako Osasun sailburu Gabriel Inclán eta Arrasateko alkate Inazio Lakuntza izan ziren ekitaldian. Ekitaldiaren aurretik, PPko eta PSE-EEko ordezkariak kontzentrazioa egin zuten, ospitale berri baten eske.

Eta anbulatoriotik Musakolara jo zuten udal ordezkari gehienek egun berean; izan ere, Musakolako kirol instalazio berriak egiteko proiektuaren (Mojategi) lehenengo harria ipini zuten eguerdian. Besteak beste, futbol eta errugbi zelaiak eta atletismo pista eraikiko dituzte Mojategin.

Inaugurazio kontuekin amaitzeko, uztailearen 30ean, zapatua, AP-1 autobidearen Bergara Hegoa-Errasate Iparra zatia inauguratu zuten. 3,5 kilometro ditu, horietatik 1,5 tunelpean. Horrez gainera, abuztuan Arrasate Iparra-Eskoriatza zatiari dagozkion lanak atera dituzte lehiaketara.


## ERAIKINAK BEHERA

Bestalde, abuztuan herria hutsago eta lasaiago dagoela aprobeztatuta, Maalako okindegia (abuztuaren 8an), Madina izeneko aroztegia (abuztuaren erdialdean) eta Torlojugintzako fabrika zaharra (abuztuaren erdialdean) eraitsi dituzte. Haien ordez, etxebizitzak eraikiko dituzte Maalako okindegia zegoen lekuan (oraindik proiektua aurkeztu beharra dago Udalean); garajeak Madinaren lekuan eta etxebizitzak Zerrajerako lehengo fabrikaren eta haren ondoko fabrikek utzitako orubean.



DEIANE ARRIETA

2,5 milioi euro baino gehiago inbertitu dituzte anbulatorioa berritzen.




ANABEL DOMINGUEZ

7.666.639,25 euro inbertituko dituzte Mojategiko kirol proiektuaren lehen fasean.



IBAN ARANTZABAL

77,4 milioi euro inbertitu dituzte Bergara Hegoa-Errasate Iparra zatia egiten.



U.M.

30 etxebizitza eraikiko dituzte Maalako okindegia zegoen lekuan.



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behea (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**  
Leihoak eta itxierak

**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaia eta aulkiak

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**S. CARRASCAL S.L.**

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel./Faxe: 943 79 01 82



**MODAYANG**

Europa, zapatak eta osagarriak

Maalako Errabala 9.  
Tel.: 943 79 50 66.  
ARRASATE.

Labeaga 43.  
Tel.: 943 53 48 68.  
URRETXU.



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 23**  
Amezua, Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74

**ZAPATUA, 24**  
Azkoaga, Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15

**DOMEKA, 25**  
Azkoaga, Iturriotz 17 . . . . . 943 79 79 99

**ASTELEHENA, 26**  
Irizar, Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39

**MARTITZENA, 27**  
Amezua, Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74

**EGUAZTENA, 28**  
Azkoaga, Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15

**EGUENA, 29**  
Azkoaga, Iturriotz 17 . . . . . 943 79 79 99

**EGUBAKOITZA, 30**  
Irizar, Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea . . . . . 943 03 53 00  
Iguatorialdea . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11

**LARRIALDIAK**  
SOS Delak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . . . egun osoa

**Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11
- Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11

**ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44

**ERTZAINZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99

**SUHILTZAILIAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088

**MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44

**GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . . 943 79 81 57

**MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron . . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Juan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
<b>Domeka</b> 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>Domeka</b> 10:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Teresa eliza</b> Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz)
<b>Domeka</b> 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	<b>Domeka</b> 12:30 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Marinako eliza</b> Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
<b>Domeka</b> 11:30 (elebiduna)	<b>Domeka</b> 11:00 (elebiduna)

**OHARRAK**

**UNBERA PELEGRINAZIOA**  
Bailarako talde erlijioso batek antolatuta, Unbera peleginazioa egingo dute. Autobusak egongo dira hara joateko. Goizeko 8etan irtengo da San Andresko autobus geltokitik eta Garibain eta Musakolan ere geratuko da autobusa. Informazio gehiago gura izanez gero: 637 994 061.

**ABAROA ELKARTEKO EKINTZAK**  
Atzo hasi eta ohiko martxan jarraituko dute Saioa gimnasioan Abaroa elkarte-koen soinketa saioek. Bazkide guztiendako dago zabalik eta elkarte-ko bulegoetan eman behar dute izena interesa dutenek. Iazko egun eta ordutegi beretan izango dira saioak aurtengo ikasturtean ere: astelehen, martitzen eta eguenetan, 07:45ean lehenengo taldea eta 08:45ean bigarrena. Ordubete-koak izango dira saioak.

Horrez gain, hilaren 28an Bizkaira egingo duten txangorako zabalik dago izena emateko epea. Mundaka, Lekeitio eta Ondarroa aldean ibiliko dira, eta izena astelehenean eman beharko dute joan gura dutenek. Azkenik, Abaroatik irailean Bartzelonara doazenek dagoeneko euren txartela jaso dezakete elkarte-ko bulegoetan.

**AEDrenAGENDA**

**IRAILERAKO LANEAN**  
Oporretatik bueltan iraile-ko eta ikasturte osorako hitzorduak prestatzen dabilta AED elkarte-ko. Datozen asteetan jakinarazi-ko dituzte ekitaldiak.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Akeiko erraustegia ixtea pentsatzen**

Deba Garaiko Mankomunitatea eratu zen orain dela hamar urte. Arrasatek lau ordezkari osatu zuten batzarra: HB, EAJ, PSE-EE eta EAkoek, hain zuzen ere. Garai hartan gai nagusietako zaborrarena izan zen, Akeiko erraustegia orduan zen-eta ixte-koa, eta erabakitzeke zegoen.




**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Gurixa”*



— Lengo abadiak lepo guri-gurixa izate eben.

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Uribarriko auzotarren kezak eta Des-Kontrol musika taldea, besteak beste, asteburuan**

Opor osteko lehen aste honetan, era guztietako gaiak landu ditugu eta haien laburpena eskainiko dizuegu *Asteko Gainbegiratu*-n, astean gurekin izateko aukerarik izan ez duzuenondako bereziki prestatuta. Horrela, bada, Uribarriko auzotarren kezak entzungo ditugu, batetik, Jone Bergaretxe eta Roman Iturberen eskutik; iturri eta elkartzeko leku faltan daudela adierazi ziguten, besteak beste, baina zarata eta kutsadura soberan dituztela. Musika kontuak ere batuko ditugu asteburu-

ko bilduma horretan; izan ere, herriko Des-Kontrol musika taldekoak irratan izan dira, abuztuan, AEBetako Kalifornian eskaini dituzten kontzertuen kontakizuna egiten. Sekulako esperientzia bizi izan dutela-eta, laster, urrian, Alemania eta Austriarako asmatan direla gaineratu ziguten. Baina gure estudioetan izan dira, era berean, iraileko azterketak direla-eta udako oporrik gabe geratu diren irakasle eta ikasleak ere. Horiek guztiak, zapatu eta domekan, 10:00etan hasita.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguena, 25	<b>11°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Martitza, 30	<b>36°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>3,8 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztana, 24	27°C 11°C - l/m²
Eguena, 25	27°C 11°C -0,4 l/m²
Egubakoitza, 26	20°C 17°C 0,3 l/m²
Zapatua, 27	24°C 16°C 3,1 l/m²
Domeka, 28	26°C 19°C - l/m²
Astelehena, 29	30°C 16°C - l/m²
Martitza, 30	36°C 16°C - l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ZAPATUA**  
10:00 *Asteko gainbegiratu*. Jone Bergaretxe eta Roman Iturbe, Uribarriko auzotarrek; Des-kontrol musika taldea; Jesus Fdez. de Arriabe eta Jesus Arantzabal, txirindulari profesional ohia;

**DOMEKA**  
10:00 *Asteko gainbegiratu*.

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
10:00-12:00 **UDA GIROAN**  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landá). Garaio, Donostiako Aquarium eta Musakolako igerilekuarekin konexioak. Lorak eta landareak. Bidaia. Kiroiak. Zorion agurren tartea (Esku hartzeko, 943 71 17 31).

12:05 *Arrasate Irratiko albistegi laburra*.

12:30 *Izarren ordua*: abesti ezagunak

13:00 *Euskadi Irratiko albistegia*.

14:00 **UDA GIROAN** (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 *Arrasate Irratiko albistegi laburra*.




## KALEINKESTA/ Egon dien sutiek ikusitte, hartzen dien neurrixek nahikuek die?



**JUAN MANCEBO**  
Langillie

Pentsetan dot ezetz, mendixek gerueu eta gutxieu garbiketean dielako. Horrekin batera, deskuido haundixek eukitten dou, jentie ez dau kontzientziaute. Edozein lekutan ezin da surik egin.



**ANDER BALTATEGI**  
Langillie

Prebentziño maillan ez dot uste neurrixek hartzen dienik, baiñe beste herrialde batzuekin konparau biherko litzake. Hor danetik dau: sute naturalak, probokautekuek, deskuiduek...



**JAIONE AGIRREURRETA**  
Langillie

Hasteko, sutie proboketan dauenak kartzelara sartuko neuke, danak. Izen be, sekulako kaltie egitten daue. Jente asko dau gutxiaugatik kartzelan; hamengo asko, gaiñera.



**JUAN AIERBE**  
Langillie

Prebentziño aldetik, asko dau egitteko. Dana dala, pentsetan dot sute batzuk jentien deskuiduek izengo die-la, eta beste batzuk probokautekuek. Oin, zigorrak nahikuek dien...



**JOSUNE MILAN**  
Ikaslie

Ez dot uste Galizian eta gainontzeko lekuetan holako sutietarako preparaute dauzenik. Horrekin batera, ikustekue da batzuetan jentiek sue nun egitten dauen, eta edozein modutan.



**ELI IZAGIRRE**  
Langillie

Akaso, oin arte ez die horrenbeste sute egon, eta ez die horrenbeste neurri hartu. Eta, geu be ez gare konturetu sutiek zenbateraiñoko kaltie egitten dauen. Beste arrazoi batzuk be egongo die.

### USTEAKUSTE

#### Gerrarik ez!

Oporretan gerraostea zer den ikusi dut. Bosnian (Mostarren eta Sarajevon) ikusi dut hori.

Gogoratuko duzue, orain dela hamar urte gerra bortitza eragin zuten han serbiarrek. Eta lotsa handia sentitu dut nire buruarekin eta mendebaldeko gure gizartearekin. Gaur egun Irakekin gertatzen dabilen moduan, orduan ere, gure gizarte modernoak beste aldera begiratu zuelako-genuelako.

Han, Sarajevon, gu bezalakoak dira: modernoak eta hori. Eta gazteek egundoko bizi-poza dute. Kalean hemen baino jende gehiago ibiltzen da egunez zein gauzez. Baina, era berean, ez dago tirokatua ez dagoen eraikinik. Eskolak jaustear, etxe orratzak-eta zulatuta... Sarajevon (gizadiaren ondare, UNESCOk hala izendatuta) pertsonen kontrako minak daude hiriko lorategi eta fabrika askotan. Bosnian milioi bat daude. Eta ondorioak agerikoak dira: hankamotzak nonahi diru eske. Amamatxo asko ere ikusten dira kalean, diru eske...

Sarajevoko hoteleko emakumeak agurtzean honako goraintziak eman zizkigun eta mezu bat ere bai: han behar gaituztela eta bisitatzerako joateko, mesedez. Nik mezu hori helarazi gura nizuen. Eta halako gertaeren aurrean sakonago erreflexionatzera gonbidatu. A, eta ondo etorri etxera!

UBANE MADERA

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ZUHAITZETAKO SUSTRAIAK** Gizakiak ipinitako trabei naturak tinko aurre egin diezaiekeela argi ikusten da argazkietan, baina sarri arriskutsuak izan daitezke oldartze horiek. San Viator ikastola ostean Santa Barbarara igotzeko bidean dauden arbolen kasua da hori, baina herriko beste leku askotan ere traba egiten dute sustraiek, eta jende nagusiarendako, batez ere, arriskutsuak izan daitezke. Argazkiko kasuan, horrez gainera, kale-argia arbolarengandik gertuegi ipini dutela argi ikusten da.

### ASTEKODATUA

# 73,87

**URKULUKO URAREN MAILA  
EHUNEKOTAN**

Uda sasoi lehorra izan bada ere, maila onean dabil gure urtegia. Hala ere, iazko datuak baino zortzi puntu beherago dago Aretxabaleto urtegia. Gipuzkoako kopururik altuenetakoa du Urkuluk, eta euri gutxi egin badu ere, erreserba nahikoak ditu.

### HERRITARRENBERBAK/ Ander Etxeberria



#### Oporretatik bueltan

**A**buztuan Katalunia aldean pasa ditudan opor egunetan hainbat kontu deigarriak iruditu zaizkit, arlo ezberdinetan sailkatu daitezkeenak.

Musika-edo. Egon nintzen herrian jaiak izan ziren (*festa major*) eta rock kontzertu batera joan nintzen bertako lagun batzuekin. Kontua da talde katalanetako batek hemengo kanta ezagun batzuk jo zituela (80. hamarkadakoak), eta horien artean abesti bat euskaraz eta beste bat RIP-ena. Hau da hau globalizazioa!

Politika-edo. Jaietan, udaletzeko balkoian, senyera zegoen beste inongo banderaren laguntzarik gabe. Hemengo ikuspegitik harrigarria dena da alkatea alderdi sozialistakoa izatea. Gainera, jakin dudanez, urte guztian dago senyera bertan (populazioan Arrasate-ren bikoitza baino handiagoa den herri horretan). Eta ez ei dago polemikarik. Itxura denez, herriaren kokaleku geografiko-

ak baldintzatzen du arazoak izatea edo ez.

Jaiak. Hango lagunek jaietako ekitaldi nagusian parte hartze aktiboa dute, eta esan zidaten beraien helburua zela jendeak jaiak sentitzea. Hori litzateke edonon helbururik gorena jaiak dagokienean.

Turismoa-edo.

Lagun talde horrek urtero txango bat egiten du Euskadira. Zer ikustera? Zer egitera? "Jatera. Jatera eta hango giroa bizitzera". Hiru eguneko programa daukate, urtez urte hobetu dutena.

Lehenengoan, autoan

etorri eta ordu bietarako barnealdeko jatetxe baten eserita daude okela bazkaltzeko. Afarirako, berriz, kostaldera doaz arraina jatera. Hurrengo egunean ere jatetxeak, pintxoak eta paseoak kaleetatik. Hirugarrenean, bazkaldu ondoren (jakina) hartzen dute etxerako bidea. Eskatu diet ibilbidea, ideia interesgarriren bat egongo da-eta. Hauek eta beste batzuk hain gertu daukagun lurralde hartan bizitako zertzeladak.

**Jendeak jaiak sentitzea da beraien helburua; edonon nahiko lukete horrela.**

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Ubane Madera

ERREDAKZIOA  
Jon Berezibar  
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Natali Martínez  
Amalia Mundiñano  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaiñarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



FUTBOLA/ Hernanin hasiko du Mondrak Liga

# Hainbat aurpegi berri eta ilusio handia Hernanin hasiko duten Liga Txapelketarako

XABIER URTZELAI

Abuztuaren erdialdean hasi zuen Mondrak aurre-denboraldia, taldea izan diren aldaketetara lehenbailehen ohitzeko asmoz. Preferenteak asteburuan hasiko du Liga luzea, eta Arrasateko taldeak Hernanin neurtuko ditu lehenengoz indarrak.

Aurre-denboraldian egindako lanak orain eman beharko lituzke fruituak, lehenengo jardunalditik hasita. Lehenengo helburuetako bat izan da jokalaria izan diren aldaketetara lehenbailehen ohitzea, eta kanpotik etorri diren futbolari berriak taldera nola egiten diren ikustea. Horrez gainera, denboraldia indartsu hasteko gogotik bota dute izerdia, maila horretan egoera fisikoak berebiziko garrantzia du-eta.

## ALDAKETAK IGARRI

Normala da taldeak oraindik ere igartzea entrenatzaileak eta hainbat jokalaria berriak direla. Azken baten, hainbat urte egin dituzte Josu Zubiaren aginduetara, eta Gordobilen eta Azkargortaren lan egiteko modura ohitzeko denbora beharko dute, baita lan handia egin ere.



Mondra taldea Ermuan jokatutako aurre-denboraldiko zeingehiagokan.

UNAI DIEZ.

*Taldean izan diren  
aldaketetara  
lehenbailehen  
ohitzea, lehenengo  
helburuetako bat*

*Gazte mailatik igo  
direnez gain, lau  
jokalaria berrik  
jokatuko dute  
Mondran*

*Taldean ez daude  
Eldin, Tiri, Jokin  
Bereziartua, Dovao,  
Inaxio Larrañaga  
eta Jon Torres*

Aurre-denboraldian jokatutako lagunarteko norgehiagoketatik gaitza da ondoriorik ateratzea. Ermutik gustura etorri ziren, nahiz eta taldeak 0-1 galdu. Gero, Bergara Hiria eta Arrasate Hiria Txapelketetan Mondrak Aloña Mendi mendean hartu (2-1), eta UDAREN kontra birritan galdu du. Bergararrek irabazi zuten euren txapelketa, eta Arrasateko saria aretxabaletarrendako izan zen, atera begira besteak baino finago dabilzala erakutsita.

## AURPEGI BERRIAK TALDEAN

Esandako moduan, Igor Gordobilena eta Andoni Azkargortarena da taldea entrenatzeko ardurak. Iban Aranguren jarraituko du arlo fisikoa lantzen, eta Larraitz Madariagaren esku izango dira lesioak. Eurekin batera, jokalaria hauek osatuko dute taldea: Ander Ruiz, Mikel Mondragon, Oier Zabaleta, Kepa Barbarias, Argider Arana, Ruben Rueda, Kepa Mercader, Markel Gonzalez, Iker Laspiur, Aitor Alartzia, Jon Loiti, Josu Zubikarai, Illart Etxebarria, Jon Altzola, Iban Garai Muxi, Ander Bereziartua Keixi, Arkaitz Garmendia, Julen Aranbarri, Gotzon Urtzelai, Maikel Hernandez, Ekain Garin, Iker Lopez, Julen Garmendia eta Andoni Azpiatzuk.

## Arrasateko atletak 1.500 metroko lasterketan eta maratoian, bihar

X.U.

Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketan Arrasateko ordezkariak dagoeneko hainbat proba egin dituzte, baina oraindik ez zaie deskantsua hartzeko ordua iritsi. Bihar, emakumeek 1.500 metroko finaletarako sailkatzeko kanporaketak egingo dituzte.

Maria Jose Gil, Mari Fran Alonso eta Maria Jesus Velasco dira Arrasateko emakumezko hiru ordezkariak. Maria Jose Gilek abuztua ez du entrenatzeko bakarrik aprobetxatu, Torremolinosen egin zuten Espainiako Txapelketan esku hartu eta urrezko domina bat (1.500 m.) eta zilarrezko beste domina bat (5.000 m.) eskuratu zituen. Donostian, berriz, 1.500 metroko lasterketan Torremolinosen baino 10 segundo gehiago behar izan ditu (23 minutu eta 36 segundo), eta 11.a sailkatu da.

Mari Fran Alonso 13.a izan da 8.000 metroko krosean (36 minutu eta 48 segundo). Lasterketan euri zaparrada galanta bota zuen,

eta hark ez zien lasterkariei onik egin, asko eta asko lurrean ibili ziren-eta, itzulipurdika. Azkenik, Maria Jesus Velasco hamalagurra izan da 5.000 metroko F40 kategorian (22 minutu eta 27 segundo). Hiru lasterkari horiek 1.500 metroko lasterketako finalak korritu gura dituzte bihar, bai-

na lehenago kanporaketak gainditu beharko dituzte.

Cesar Diez Arrasateko gizonzko ordezkari bakarra bihar estreinatuko da Donostian. Iraupen-lasterkariak maratoian hartuko du esku (08:30ean), eta proba horrekin amaitu gura du bere kirol ibilbidea.



Proba asko egin badituzte ere, bihar egongo da zer ikusi Donostian.



## Lehen mailako futbola Atxabalpen

Datorren eguaztenean, hilak 7, Realak eta Eibarrek lagunarteko norgehiagoka jokatuko dute Atxabalpen (18:00). Kirol ekitaldi hori kilometroen barruan dago, eta jakin dagoeneko sarrearak Monte eta Ziorla tabernetan daudela salgai (nagusiek 10 euro, eta 16 urtetik beherakoek 5 euro). Espainiako selekzioak jokatzen duela-eta, gainontzeko ligek etenaldia egingo dute, eta bi talde horiek lagunartekoa egiteko aprobetxatuko dute. Biak hala biak nola hasi diren ikusita, ez daude denbora galtzen ibiltzeko moduan /X.U.





Abuztuaren 8an irten eta lehen kontzertua Stocktonen egin zuten.

DES-KONTROL

MUSIKA/ San Frantzisko inguruan sei emanaldi egin dituzte

## Kalifornian bira egin du udan Des-Kontrol taldeak

JON BEREZIBAR

Sei kontzertuko tourra egin dute Des-Kontrol taldekoak Kaliforniako kostaldeko hainbat hiritan. Erantzun ona jaso dute hango emanaldietan eta gustura itzuli dira esperientziarekin. Orain proiektu berriak dituzte, eta urtarrilean diskoa grabatuko dute.

Barakaldon jo zuten kontzertu baten ezagututako Kaliforniako talde batek gonbita eginda, Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldeko kostaldeko hainbat hiritan tourrean ibili dira Des-Kontrol taldekoak. Hango jendea eta giroa "oso ezberdinak" direla diote Oier eta Haritzek, Des-Kontrol taldekoak, baina Ameriketako igarotako bi asteetan hain tratua izan eta gero, berriro ere gustura itzuli lirakeela diote aho batez. Los Dryheavers dauka izena hemen ezagutu eta Kalifornian anfitrioi lanetan ibili den taldea. Estatuan biran ibili dira aurten eta Barakaldon egin zieten gonbita. Des-Kontrol taldekoak ez zuten birritan pentsatu baietz esateko, eta han bizitakoarekin "oso pozik" itzuli dira. Aipatutako musika taldeak harrera bikaina egin zuten, izan ere, euretariko hainbat chikanoak izanda, ez dute komunikatzeko arazorik izan.

Sei izan dira kostaldeko hirietan eskainitako kontzertuak. Abuztuaren 8an irten eta lehen emanaldia handik bi egunera egin zuten, Stocktonen. Pub bateko jaialdi baten jo zuten hango bes-

te hiru talderekin. Haritzek kontatutakoaren arabera, "jendeak han oso gustu zehatzak ditu eta talde asko eta oso onak daude". Hala ere, Des-Kontrol taldekoak ere ikusle amerikarren jakin-mina piztea lortu omen zuen, disko eta kamisetak asko saldu zituzten-eta. Kontatu zigutenez, "jendeak ohitura handia dauka han kontzertuetara joateko, eta ia egunero daude emanaldiak". Stocktondik Monterrey aldera jo zuten. Hurrengo kontzertua han egin eta handik hiriburura joan ziren, San Frantziskora; eta azkenik Santa Cruzera. "Hango kontzertuak eta lokalak zeharo diferenteak dira, barruan ezin daiteke erre, eta kalean ezin daiteke edan. Hori egi-

ten zitzaigun arraroa", dio Haritzek. Kontzertuak ematen amaitu zutenean, bigarren astean Kalifornia ezagutzen ibili ziren alokatutako furgoneta batekin. Ikusitakoaren arabera "oso gustura" ibili ziren kaliforniarrak Des-Kontrol taldearen kontzertuetan, "nahiz eta hasiera baten arraroa egiten zitzairen", dio Oierrek. Orain arrasatearrei gonbita itzultzea tokatzen zaie, eta ziurrenik datorren urteko Aste Santuetan Kaliforniatik bi talde etorriko dira Euskal Herrira. Des-Kontrol taldekoak, berriz, Mexiko daukate buruan datorren udarako. Ameriketako bidaiari amaitu badute ere, gelditu egoteko asmorik ez dauka laukoteak. Lanera itzultzea "gogorra" egin bazaie ere, proiekturik ez zaje falta ikasturte berri-rako. Momentuz kontzertu batzuk egingo dituzte hemen inguruan eta urriaren hasieran berriz ere kanpora joango dira. Vigon eskainiko dute kontzertua oraingo honetan eta hurrengo astean, Alemania eta Austria aldera joko dute, han lau kontzertu egiteko Señor No taldearekin batera.

*Urrian Alemanian  
eta Austrian  
emango dituzte  
kontzertuak Señor  
No taldearekin*

*"Hango lokaletan  
beste ohitura batzuk  
daude, ezin da erre  
eta kalean ezin da  
edan"*

### PROIEKTU UGARI AURRERANTZEAN

Hori gutxi balitz, dagoeneko disko berria prestatzen hasi dira. Urtarrilean grabatzeko asmoa dute eta martxoan kaleratuko da, Oihuka diskoetxearen eskutik. Gainera, kontatu zigutenez, Kalifornian bertan hainbat diskoetxe euren materiala edukitzeko interesa erakutsi zuten eta 3.000 kopia eskatu dizkiete jo zuten hirietan banatzeko.

## LABUR

### Aupa Etxebeste! eta Donostiako Zinemaldiko haurren filma, besteak beste, ikusgai

Udazkenerako ekitaldien agenda ixten ari da asteotan Udaleko Kultura Saila, baina dagoeneko aurreratu dituzte hil honetarako prestatzen ari diren hainbat emanaldi.

Zinema izango da ardatza. Izan ere, *Aupa Etxebeste!* euskal filma estreinatuko da Arrasaten hilabete amaieran, eta Donostiako Zinema jaialdia dela-eta haurrentzako saio berezi bat ere prestatzen ari dira 17an. Momentuz hitzordu bakarra dago lotuta. Dantza emanaldia izango da Amaia antzokian 18an, Kukai taldearen eskutik. *Otehitari biraka* dauka izena ikuskizunak.

### Djen emanaldia asteburuan eta agenda mardula 3.60 aretoan irailerako

Oporretatik itzuli dira 3.60 aretoakoak eta dagoeneko gertu daukate irail eta urrirako kontzertu eta emanaldien zerrenda. Asteburu honetan, hasteko Ene! Kogollo Crew DJ ibiliko da zapatuan goizaldeko hiruretan hasita.

Irail eta urriko hitzorduei dagokienez, datorren zapatuan Kol-do Meataka ibiliko da aretoa girotzen eta hilabete amaieran Enboskada eta Red Alert taldeak egongo dira jotzen. Urrian, besteak beste, Bad F Line eta Fermin El Magoren emanaldiak programatu dituzte ohiko DJen saioekin batera.



### Zine proiektore berria Amaia antzokirako

Zine emanaldietarako ekipamendu berria erosteko lehiaketa publikoa ireki du Udalak. Filmek beharrezkoak dituzten irudi eta soinu aparatuek erosi gura dituzte, gaur egungo ikus-entzunezkoei egokituta daudenak. Orain arte erabili dutena 70eko hamarkadatik daukate, eta egungo eskakizunetara moldatu gura dute ekipamendua. Aurrekontua 83.000 euro izango da 35 mm-ko proiektore eta soinu sistemarendako.





## BOTEPRONTUEN

## Juan Carlos Davila

## MONTE TABERNA

XABIER URTZELAI

Bost urte egin dau Juan Carlos Montan lanien, baiñe lehenau be barra baten baiño gehixautan ibilli da: Kajoin, Garibain... Bakaziñuek bukatute, deskantsaute hasi dau ikasturtie. Horretarako paraje ederra da Segovia, deskantsetako.

Tourreko diru dana batute, Vueltarako batu dozue nahikue?

Bai, Vueltan be errekorra gaindittu dou, bostehun lagunek emun daue-eta izena. Abuztuko azken astien zala jakindde, ez geuen pentsetan horrenbeste jende animauk zanik, baiñe bai. Tourrien zortziehun lagun baiño gehixau animauk zien, hortan, ez dau bape txarto.

Zelan ikusten dozu Españako Itzulixe?

Parekatute egongo da gauzie, batzuek azkeneko aukerie dalako, eta beste batzuek kontratue bukaketan dauelako.

Porrien konture publizidade ederra egitten dozue.

Halaxe da bai, publizidade beti etorten da ondo.

Aurten be Real gertutik jarraituko dozue, ala?

Urtero moduen. Baiñe Txuri-Urdin peñiei bultzadie emun gure dutzou, eta irteera potentiek daukou preparaute.

Taldie ez da biher dan moduen hasi.

Ez, hori egixe da. Hiru gol askotxo da, baiñe Athleticek merezitte irebazi euen; Realak ez euen itxura onik emun.

Datorren astien etorriko die Real eta Eibar Atxabalpera.

Bai, eta jakin sarrerak Montan eta Ziorla tabernan daukoule salgai. Kilometruen aldeko ekimena da, eta seguru nau jentie animauko dala.

Beste negozio batzuekin batera, herriko kirol ekintza batzuetan parte hartzera animetan zarie, eta eskertzekue da hori. Konpromisue, afiziñue...

Lehenengo afiziñue, eta gero herriko kirol taldiekin konpromi-



X.U.

*“Españako Itzuliko porran be errekorra gaindittu dou, 500 lagunek emun daue izena”*

sue baita be. Emakumien saskibaloiko txapelketie izen zan guk organizau geueña, eta beste ekin-tza batzuetan ahal doun neurrixen lagunketan dou. Penie emuten dau beste batzuk ezer egitten ez dauela ikustie, eta instituziñuetatik be gutxi lagunketan daue.

Laneko gauza txarrena?

Batzuetan ordu asko egitten doule lanien.

Eta onena?

Jentiekin tratue.

Terraziek egunek kontaute eukiko dau, ala?

Eguraldi txarra datorrenien, kendu egin biher.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?

*“Maritxutan juergie egittie ez litzake kapritxue izengo, hori lujue izengo litzake”*

Zerbitzuek.

Eta ze dauko ona?

Bertako jentie.

Ze falta jatzu zeuri?

Familixiekin gehixau egoteko denporie.

Eta ze dauketzu sobran?

Karakterra.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

*Apocalypse Now / Biografia de Ernesto Che Guevara / Platero y Tu.*

Kapritxo bat.

Egixe esateko, ez jat ezer okurriduten.

Akaso, Maritxu Kajoi egunien juergie egittie.

Hori ez litzake kapritxue izengo, hori lujue izengo litzake.

## NIREBIDAIAHURA / Egoitz Unamuno

Indonesiara / Martxo amaieratik ekainera arte.

Oporretatik itzuli berri, gura beste kontakizun izango dituzue askok, eta Whiskas-en, Etor-en eta Muxi-ren bidaiaren azken kapituluaren berri eman aurretik, oporretan ezagututako lurraldeen eta izandako bizipenen berri emateko animatu gura zaituztegu.

Uztaileko azken kapituluaren Baliko hondartzetan utzi genituen lehenago aipatutako hiru surfariak. Balin egoteaz gain, baina, Lombok eta Nusa Lembongan uharteetara ere joan ziren, olatu bila. Surfa egiteko asmoz joan ziren hara, eta ibili ziren horretan, baina egia da ez zituztela espero bezalako olatu ederrak hartu, askotan ez, behintzat. Hara eta hona ibili ziren, hondartza perfektuaren bila, eta ederrak aurkitu zituzten, baina perfektu hori ez. Whiskas-ekin jarraitu dugu berbetan: “Etxekoek behin baino gehiagotan galdetzen zidaten ea zer moduz jaten genuen, eta erantzuna izaten zen: ederto. Sekulako gosariak jartzen zizkiguten, eta gura beste arrain fresko jaten genuen, oso-oso merke gainera. Poliziengandik urrun ibilita, han ez dago arazorik. Edozer gauzogatik isuna jartzen dizute; behin, 9 euro ordaindu behar izan genituen, eta euren soldata 100 euro denez, ez dute bat bera ere barkatzen”.

Etor lehenago itzuli zen Indonesiako paradisuetik, baina Muxi-ri eta Whiskas-i ere berehala iritsi zitzaizen maletak egiten hasteko ordua: “Aireportuan arazoak izan genituen. Gehienez 20 kilo ekarri ahal genituen, eta han erosi nituen kamiseta eta bainujantziekin 53 kilo pisatzen zuen nire maletak. Arropak oso merke daude han, eta 20 bat bainujantzi erosi nituen, hemengo lagunei oparitzeko. Ahal nuena ekarri, eta gainontzekoa hanga lagun bati utzi nion, gero bidaltzeko”. Handik etorrita, berriz ere noiz itzuli daukate buruan: “Badakigu joan garen moduan joatea gaitza izango dela, dirua baino gehiago denbora behar delako. Baina abuztuko oporraldian joateko ere leku aparta da, merezi du, eta ez dago zertan surfa egitera joan”.

XABIER URTZELAI



Olatu perfektuaren bila.




*“Poliziak urrun badaude, han ez dago arazorik”*

## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.







## URIBARRIKO JAIETAN, ITURRIPEN, NAHIKOA BARRE

**E**guraldi ederra izan dute Uribarriko jaietan. Joan den eguazte-  
nean hasi zituzten jaiak, abuztuaren 24an, eta auzotarrendako  
luntxak, mus txapelketak, buruhandiek eta bertsolariek girotu  
zuten lehenengo jai eguna. Eguen eguerdian, eguzkiak ederto  
jotzen zuenean, Iturripeko pilotalekuko itzala aprobetxatu zuten  
umeendako jolasak egiteko, eta hantxe ibili ziren guztiak lurlean  
buelbaka. Gura beste barre egin eta gero, Udala aldera egin zuten  
herritarrek, auzoko bazkaria egitera.

Flusskreuzfahrtschiffe ankern auf der Donau vor der Altstadt  
Navi per la navigazione fluviale sul Danubio davanti alla città vecchia  
Navires fluviaux sur le Danube devant la vieille ville  
River cruisers at anchor on the Danube river along the historical center

REGENSBURG edo RAIBODNA 2005-8-18AN

DANUBIO IBATARRI SORREKATIK ABIAZTUTA,  
GARRKO GERTOKIA ALEMANIA NEGONDOKO  
HIRI POLIT HAU DA. BIDEAN ZEHAR  
DANUBIOTI JARRAITUE, BIZIKLETAN  
IBILTZEK EREZKORNO NEKEA UXTZEKO  
ZER HOBETO ONDO BAZKANDU OSTEAN  
BEBETEKUAN LABARTEAN BAINO.

HALA BERE GURE HETIUSA DEN  
PASSAJARA KETZEKO, BESTE HIRI  
BAT EGUN EGUN BEHARRO DITUGU  
BIZIKLETA GATNEAN. BATNA GUSTORA  
LAGAI ETA ATSEGINEE EGITEKO DA.  
ALEMANIATIK, AGUR T'ERDI.

LICHTBILDER · Thomas Ferber, Regensburg, Tel. (09 41) 5 64 04  
www.lichtbilder-online.de



GOIENKARIA

OTALORA LIZENTZIATUA  
KALEA ZIG

20.500 ARRASATE  
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA  
BASQUE COUNTRY //

BASKENLAND





REGENSBURG



BLED - Slovenija

BLD - SLOVENIJA  
Blejsko jezero  
Lake Bled



ER GOIENKARIAS

Hemen zuzgarrezko blu eta  
mendial daude eta bizikleta  
elbeteo tole zozagaria da.  
Xorri bai, euz zozagaria da.  
ugarl-ere jaso delugu.

LOSTER DEIE,  
ER BESIRKADA BOT?

Foto: I. Orzañam

GOIENKARIA

OTDORD KOLEA

ARRASATE

20500 (GIPUZKOA)

(BASQUE COUNTRY)

PERU DROVA, MARRAD ETORRIDEA 940

TEL 894370522 (ARRASATE)

## EUROPA ALDEKO POSTALAK IRITSI ZAIZKIGU AURTEN

**E**skertzekoa da *Goienkaria*-ko bi irakurle horiek izan duten  
detaila, oporretan egonda ere gutaz gogoratu direlako. Baziru-  
dien teknologia berrien eraginez postalak desagertu egingo  
zirela, baina badirudi, nahiz eta e-posta edo poltsikoko telefonoak  
erabili, postalak erosteko ohitura zeukatenek ez dutela ohitura hori  
galdu. Bi postal horiei esker jakin dugu Peru Arana eta Unai Bergare-  
txe Europa aldean ibili direla, bizikletan. Lehenak Eslovenian dagoen  
Bled-eko postala bidali digu, eta bigarrenak Alemania aukeratu du  
oporretarako, Regensburg-eko ingurua. Erretratuak bakarrik ez, inguru  
horien berri ere eman digute. Hala, badakigu bizikletan joateko paraje  
ederrak direla, txamarra ona eramanda.



ELKARRIZKETA

AINHOA URIARTE/GUATEMALAN IRAKASLE

*“Umeei zuhaitz bat marrazteko esan, eta harriduraz begiratzen gintuzten”*

JON BEREZIBAR

Guatemala iparraldean dagoen komunitate indigena baten liburutegia eraikitzeko dirua biltzen ibili da Ainhoa azken hileetan. Irail erdialdean abiatuko da bertara, eta maiatzera arte, gutxienez, geratuko da proiektuarekin.

**Dagoeneko azken prestaketak egiten ibiliko zara, ezta?**

Desiratzen nago dagoeneko bertara joateko. Gainera, lekua eta jendea ezagutzen ditut, eta irrikatzen nago. Gerrarengatik asko sufritutako komunitatea da, eta oso egoera berezian daude. Hori dela eta, ez zaituzte hasiera-hasieratik besoak zabalik hartzen, beldur apurtxo batekin ere gerturatzeko dira, ez dira guztiz fidatzen. Haur Hezkuntza ikasi eta urtarilean proiektua egiten Guatemalara joan ginen heziketa fisikoko eskolak ematera, Santa Maria de Tzejara, komunitate indigenara. Han, soinketa eta ingeles irakasle ibili ginen praktiketan.

**Garrantzia ematen diete ikasketei?**

Bigarren Hezkuntza komunitatean egin ostean gero eta gazte gehiago hasi da hiriburura joaten ikasketekin jarraituz. Eta gainera, han ikasketak komunitatean lagungarri izateko aukeratzeko dituzte, herria aurrera ateratzeko: nekazaritza, arkitektura... Ez dituzte euren gustuko ikasketak aukeratzeko, gizartearentzat mesedegarriak direnak baizik, eta harrigarria iruditu zitzaigun. Uste genuena baino askoz ere desberdinagoa da hezkuntza Hego Amerikan. Zorrotz eta diziplinatuagoa imajinatzen genuen dena, baina zur eta lur utzi gintuen han aurkitu genuenak. Han berdina zaie irakasleei, norberak gura duena egiten du, umeak eskolagatik negarrez hasten badira, gurasoek ez dituzte bidaltzen eta kito.

**Beraz, hango lanetako bat hezkuntzaren garrantziaz ohartaraztea izango zen.**

Gutxienez, gu beharra ulertarazten saiatzen gara. Etixerako lanen kontua, adibidez, bertako ohituren oso adierazgarria da. Sarri haurrak etxeko lanak edozein lekutan edonola egiten ikusten genituen, enborren gainean-eta. Hori ikusita, bertakoei galdetu genien ea haurrek ariketak egiteko leku egokiagorik ez zeukaten, eta behar hori ikusita hasi ginen liburutegiaren proiektuarekin.

**Praktikak amaituta, beraz, bazeneukaten itzultzeko aitzakia, ezta?**

Han, eman baino gehiago jaso egin dugu, izan ere. Ni eurei



*“Ipuinak eta didaktika liburuak eskatu dizkigute hango liburutegia osatzeko”*

laguntzen ibili naiz, baina elkarrenganako izan da aberastea. Liburutegia amaitzeko urtebete beharko dugula uste dugu, baina maiatzera bitartean geratuko gara hasiera baten, gutxienez martxan jartzeko lain. Herrialde guztian ia %40k ez dakite irakurtzen, baina gure komunitatean baxuagoa da ehunekoak, %12. Horrengatik ez ditugu oso liburu sendoak eta letra txikikoak aukeratu, ez daukatelako irakurtzeko ohiturarik. Eurek ere margotzeko-eta ipuinak eskatu dizkigute. Han umeek ez dakite marrazten, marrazkiak sekula ikusi gabe koak direlako. Zuhaitz bat marrazteko eskatu eta harridura aurpegiarekin begira geratzen zitzaizkigun neska-mutikoak.

*“Euren komunitatearentzat mesedegarriak diren ikasketak egin ohi dituzte”*

Ipuinekin-eta imajinazioa landuko dute. Bertako irakasleek ere didaktika liburuak eskatu dizkigute.

**Eta diru bilketarekin zelan zabilzate?**

Ahal den guztia jaso gura dugu. Arrasate, Aretxabaleta eta Oñatiko dendetan ipini ditugu itsulapikoak, bi mila bat. Horietaz gain, Fagorren, Kutxan eta Euskadiko Kutxan ere eman digute laguntza. Kontu korrontea zabaldu dugu Euskadiko Kutxan: 3035 0044 83 0440023249. Lagundu gura duenak horra jotzea dauka. Bertako egonaldia gure kabuz lotu dugu, eta jan eta lo egiteko komunitateak antolatzen ditu liburutegian egingo dugun lanaren truke.

LABUR

**AGAKOk gaur gaueko batzarrera joateko deialdia egin die Arrasateko gazteei**

Ikasturte berriari ekiteko prest daude Arrasateko gaztetxean ere. Udako geldialditxoaren ostean gaur gaueko 22:30ean batzarra deitu dute AGAKOkoek. Ikasturteko lehena izanda, jendea batzeko deialdi berezia egin gura dute gaurkoan, baina, beti bezala, herriko gazte guztiei egiten zaie parte hartzeko deialdia.


Barrari dagokionez, zapatu honetan ere irekiko da eta ohiko txandekin jarraituko dute gaztetxean.

**Oporretatik bueltan, bidaietan bizitako berri emateko ordua ‘Gomendatzen dizut’ lehiaketan**

Udal Gazte Zerbitzuak gazteen bidaien eta esperientzien bilduma egin gura du, informazio hori batu eta gainontzeko gazteentzako baliagarria izan dadin. Izan ere, gazte asko eta asko joaten dira Gazte Bulegora euren bidaiak prestatzeko, bertan zuzenean jaso dezakete eta informazioa.

Hori da *Gomendatzen dizut* egitasmoaren ardatz nagusia, joandako Aste Santuetatik martxan dagoena. Udalaren webguneak kudeatzen ditu gomendio guztiak, eta irailean udako oporretan jasotakoak ikusi ahal izango dira. Bertan, gazteek euren parekoen esperientziatik bidaien berri izan dezakete, eta gero eta gehiago dira bertan jasotzen diren proposamenak. Beraz, bidai politen bat egin eta esperientziaren berri eman edota, alderantziz, nonbait arazoak edo trabak izan duten gazteek eurek bizitakoa zabaldu eta lagungarri izateko aukera ematen du egitasmoak.

Honekin batera *Asteleheneko Goienkaria*-k ere irakurleen joan-etorrien berri izan gura du Udako Argazkien Lehiaketarekin. Aurtengoak edota beste urda batekoak izan daitezke argazkiak eta debagoiendar guztiei dago zabalik parte-hartzea. E-postaz bidali beharko dira [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera. Argazki kamera bikaina eta Kantabria edo Asturiasen asteburua daude jokoan. Irabazleak urriaren 3an jakinaraziko dira, eta nahi beste argazki bidal daitezke.



**Iraila hasi berri, eta azterketak gainean**

Jendez gainezka dago abuztu amaieratik Monterrongo liburutegia. Azterketak oso gertu eta gazte askok toaila eta bainujantzia liburuengatik aldatu behar izan ditu, eta goizeko lehen orduetatik zaila da liburutegian ikasteko txokorik aurkitzea.

Hala ere, aurreko iraila baino lehen ikasten hasi gura izan duenak liburutegia abuztuaren zabalik izan du lehenengo aldiz. Arduradunek daturik ez duten arren, askok erabili dute liburutegia udan. Herria abuztuaren batez ere zerbitzu barik gertatzen dela ikusita, liburutegia zabalik izatea erabaki zuten arduradunek gabezia horiei aurre egiteko./J.B.



# Eskaintza ona bada EZ GALDU AUKERA

# Iraila eta Urria

**ESERLEKUEN  
KONFIRMAZIOA BEREHALA**

## BALEARRAK 8 egun / 7 gau

	IRAILA	URRIA
<b>MALLORCA</b>		
CLUB LAGUNA BELLEVUE APT. 20.000.4 pers.	OB 248	-
SAGA H. **	ME 259	-
BAHAMAS H. ***	ME 333	-
DELTA H. ****	ME 357	-
OFERTA RIU ****	ME 455	-
<b>MENORCA</b>		
CISNE BLANCO APT. 20	OB 219	-
BINIBECA CLUB EST. 20.000.3 pers.	OB 279	-
ACORN ALMIRANTE FARRAGUT H. ***	HG 455	-
<b>EIVISSA</b>		
CENTRAL PARK APTU. 20.000.4 pers.	OB 217	-
PISCIS PARK H. **	ME 298	-

## KANARIAK 8 egun / 7 gau

	IRAILA	URRIA
<b>TENERIFE - PTO DE LA CRUZ</b>		
VALLE LUZ APT. 20	HD 285	240
PANORÁMICA GARDEN APHT. ***	ME 325	290
INTERPALACE H. ****	ME 410	359
SEMÍRAMIS H. *****	ME 491	420
<b>TENERIFE HEGOALDEA</b>		
FIESTA OASIS PARAÍSO H. ***	ME 385	305
SOL PRINCESA DÁCIL H. ***	ME 407	331
H10 LAS PALMERAS H. ****	ME 497	462
<b>LANZAROTE</b>		
ROCAS BLANCAS APT. 20.000.4 pers.	OB 304	263
LAS GAVIOTAS APT. 20.000.3 pers.	OB 318	278
PARADISE ISLAND APHT. ***	GB 499	470
<b>KANARIA HANDIA</b>		
BALI FLOR APT. 20	HG 333	297
BUENAVENTURA H. ***	ME 484	448
RIU WAIKIKI H. ***	GB 516	480
<b>FUERTEVENTURA</b>		
COSTA TROPICAL APT. 20.000.3 pers.	OB 328	-
TOFIO H. ***	GB 455	-

## EUROPA eta Afrika Ipar. 8 egun / 7 gau

	IRAILA	URRIA
<b>BUDAPEST</b>		
VENTURA H. ***	HG 466	-
ASTORIA H. ****	HG 631	-
BUDAPEST ETA PRAGA H***	HG 499	-
<b>PRAGA</b>		
SPLendid H. ***	HG 399	-
OLIMPIK I H. ****	HG 519	-
PRAGA ETA BUDAPEST H***	HG 514	-
<b>ISTANBUL</b>		
BIRBEY H. ***	HG 346	-
<b>TUNISIA</b>		
IBEROSTAR LIDO H. ***	HG 374	-
HAMMAMET AZUR PLAZA H. ****	ME 391	-

## KARIBEA 9 egun / 7 gau

	IRAILA	URRIA
<b>PUNTA CANA</b>		
IBEROSTAR DOMINICANA H. *****	GB 799	911
IFA BÁVARO VILLAGE H. ****	GB 816	780
GRAND PARADISE BÁVARO H. ****	GB 844	844
NATURA PARK H. *****	GB 921	921
FIESTA BEACH DELUXE H. *****	GB 945	938
CATALONIA BÁVARO BEACH H. *****	GB 850	850
<b>CANCUN</b>		
MAYA CARIBE H. ****	GB 959	959
RIU CANCÚN H. *****	GB 1065	1026
<b>MAIA ERIBERA</b>		
CLUB MAEVA H. ****	GB 925	895
RIU LUPITA H. *****	GB 950	950
CATALONIA YUCATÁN BEACH H. *****	GB 1000	979
IBEROSTAR PARAISO BEACH H. *****	GB 1129	1107
<b>LA HABANA</b>		
GRAN CARIBE RIVIERA H. ****	HG 777	777
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG 867	853
<b>VARADERO</b>		
GRAN CARIBE KAWAMA H. ****	GB 918	918
RIU LAS MORLAS H. ****	GB 952	934
<b>HABANA/VARADERO</b>		
COPACABANA/GC KAWAMA H. ****	HG/GB 871	871

**KOSTAK %30 erainoko DESK.**  
UMEAK DOAN

## KOSTAK Prezioak pertsonako eta gau bat

	IRAILA	URRIA
<b>BRAVA ROSAS</b>		
SAN MARC H. ***	ME 34,47	23,17
CORAL PLATJA H. ****S	ME 44,04	29,88
<b>BRAVA TOSSA DE MAR</b>		
DON JUAN H. ***	ME 27,68	19,40
<b>MARESME SANTA SUSANA</b>		
ALHAMBRA H. ***	ME 22,68	14,57
CAPRICI VERD H. ****	ME 25,86	20,58
<b>DORADA SALOU</b>		
CALIFORNIA GARDEN H. ***	ME 28,68	20,32
SOL COSTA DAURADA H. ****	ME 38,03	25,00
<b>DORADA CAMBRILS</b>		
AUGUSTUS H. ***	ME 33,29	18,39
TRYP PORT CAMBRILS H. ****	ME 37,04	32,42
<b>DORADA L'AMETILLA DE MAR</b>		
AMETILLA DE MAR H. ****	ME 36,47	25,69
<b>AZAHAR PEÑISCOLA</b>		
CASABLANCA H. ***	ME 34,98	26,28
<b>BLANCA BENIDORM</b>		
CARLOS I H. ***	MO 41,20	34,32
MEDITERRÁNEO H. ****	MO 48,06	42,90
<b>CÁLIDA LA MANGA</b>		
CAVANNA H. ****	ME 42,32	25,37

DESK. BARNE

## Azken orduko eskaintzak

<b>LANZAROTE</b> 8 egun / 7 gau	Irailak 4
ROCAS BLANCAS APT. 20.000.4 pers.	OB 240
ROCAS NEGRAS APT. 20.000.4 pers.	OB 270
<b>EIVISSA</b> 8 egun / 7 gau	Irailak 8
CENTRAL PARK APT. 20.000.4 pers.	OB 193
SIRENIS CORAL PLAYA H. ***	ME 338
<b>KANARIA HANDIA</b> 8 egun / 7 gau	Irailak 3
BALI FLOR APT. 20.000.3 pers.	OB 254
GLORIA PALACE SAN AGUSTÍN H. ****	HG 414
<b>MADEIRA</b> 8 egun / 7 gau	Irailak 7
SANTA MARIA H. ***	HG 426
D'AJUDA STAR APT. ****	HG 452
<b>TUNISIA</b> 8 egun / 7 gau	Irailak 2 eta 9
IBEROSTAR LIDO H. ***	ME 345
HAMMAMET AZUR PLAZA H. ****	ME 362
<b>PUNTA CANA</b> 9 egun / 7 gau	Irailak 3 eta 4
IFA BÁVARO VILLAGE H. ****	GB 720
OFERTA RIU H. ****	GB 760
<b>PUERTO PLATA</b> 9 egun / 7 gau	Irailak 6
RIU MAMBO H. *****	GB 649
<b>FUERTEVENTURA</b> 8 egun / 7 gau	Irailak 7
COSTA TROPICAL APT. 20.000.3 pers.	OB 200
COSTA TROPICAL APT. 20	OB 222

Eskaintza gehiago:  
[www.viajesiberia.com](http://www.viajesiberia.com)  
Egin erreserba!



**IRTEERAK  
BILBOTIK**

Irteerak Bilbotik Karibera izan ezik; hori Madrildik. Prezioak pertsonako logela bikoitzean aurretik aipatutako erregimenean. Irailko eta urriko irteera konkretuentzat bakarrik. Kostak: iragartzen diren prezioek deskontua barne dute, garraioa ez dago barne, kontsultatu gutxieneko egonaldia zenbatekoa den. Karburantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostaturia bakarrik HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu erdia, MO: Mantenu osoa, GB: Guztia barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. ESERLEKU MUGATUAK.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.

**VIAJES IBERIA**

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

902 108 108



EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein auzotan dago argazkian ikusten duzuen parke hori?  
Arrastoa: aldapa handi samarrak ditu inguruan.

**Super BM**

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Kraft Maionesa**  
450g-ko ontzia

**0,99€** 165 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**TXARO PAGALDA** irendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Txaro!

Galderen erantzun zuzena:

Andikano-Zelaa jauregia edo Urizar etxea.

ERRETRATUZAHARRA

Lehen, oporrak motzago eta merkeago

**G**ehientsuenok oporretatik bueltan izango gara dagoeneko. Baina oraindik oporren oihartzuna buruan dugula ekin diogu ikasturte berriari. Bide horretan, argazki zaharren tartean oporrek lotutako argazki bat aukeratu dugu. Batez ere, opor haien eta gaur egungoen arteko aldea erakusteko.

Argazkia 40ko hamarkadako da, 1945 ingurukoa, hain justu ere. Kon-suelo Azkarraga eta Leon Zugasti azaltzen dira. Lekua, berriz, Debako hondartza da. Izan ere, huraxe zen antzina arrasatear askorendako opor lekua, batez ere zegoen diru eskasirengatik. Hara bestela Karmelo Zubillagak zela oroitzen duen sasoi hura: "Ni sartu nintzen Zerrajeran abuztuan 26an. Hasten zien bakazi-nuak Andra Mari bixamonan, 16an, eta 26an barrura. Izeten zien 8 egun jai. Ba ez zauen dirurik kanpora joateko. Zarugalden bizi gintzen eta 16 urtekin han ibiltzen ginen. Amak pagia ematen bazauen Debara trena hartuta. Ilusino bat! Orduan trenian pila jentia Debara.



35 bat km. eta trenak tardetan auen ordu bete ixa. Hantxe igari ein, atsal-dia pasau eta berriro azkenengo trenarekin etxera. Horreik bakazinuak izeten zien orduan".

Trena, berriz, kendu egin zuten 60ko hamarkadaren bukaeran eta

hantxe bukatu ziren askorendako Debara bidaiak trenak. Hain zuzen ere, 1967ko abenduaren 31n egin zuen azken bidaia; txistu joka pasatu zen Arrasatetik. Antza, linea hark erren-tagarri izateari utzi zion, ordurako auto ugari zegoen herrian eta trena-

ren erabiltzaile kopurua izugarri murriztu zen-eta.

**Argazkia eta informazioa:** Arrasate, langileek eraikitako herria liburua.

**Urtea:** 1945 aldera.



## 2005-2006 ikasturtea

### ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza 2 (Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)  
20500 Arrasate  
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Fax: 943 79 91 43  
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

**Bulego ordutegia**  
Goizean: 10:00-13:00  
Arratsaldean: 15:00-18:30

### LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4  
20550 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62  
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

**Bulego ordutegia**  
Goizean: 09:00-13:00  
Arratsaldean: 15:00-19:00

## Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

matrikula **zabalik**  
irailaren 1etik aurrera



Mibel González  
Postaria

Bianca Daubagna  
Jaurizakako langilea

David Arnalaz  
Ikaslea

Rosangela De Oliveira  
Zaharbermtzailea

Magdalena Cuesta  
Erizalaina

Jabier Lejarzegi  
Erretiratua

Paki Mendizabal  
Etxekoandrea

Cristina Rodríguez  
Langabea

UDAL  
EUSKALTEGIAK  
www.udaleuskaltegiak.net

HAZTEKORRENTZAK

## HIZKUNTZAK DENONTZAT

● haur, gazte, helduentzat

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak  
(ingelese, euskara, hizkuntza, matematika...)

- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Multimedia sistema
- Mediateka dohan
- Bezeroei zerbitzua emateko estraneta
- Ikaslearen banan-banako jarraipena
- Ordenagailu gela eta internet
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

Matrikula epea zabalik

**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Arrasate - Gipuzkoa  
Avda. de Álava, 4 • Tel.: 943 71 20 55  
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
www.cim-idiomas.com

bai&by

frantsesa

txinera

alemana

ingelese

italiera



# Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a

391. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: 55378/94

## Zine zaharra botatzen hasteko Foru Aldundiaren oniritziaren zain dago Udala

MIRARI ALTUBE

Udalak irailean gura zuen bota zine aretoa eta kultura etxea dauden eraikina, eta lehenbailehen hasi berria eraikitzen. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareak, baina, ez botatzeko gomendatu zion Aldundiari. Hala, erabakia Diputatuen Kontseiluak dauka.

Kultura etxe eta zine aretoko lanak nork egin erabaki behar zuten Udalak uztailaren 21eko osoko bilkuran. Lanok egiteko, lehenik eta behin eraikina bota egin behar da, baina Eusko Jaurlaritzak ezezkoa eman zuen, eta tramite lanak geldiarazi. Hala, erabakia Diputatuen Kontseiluak hartuko du Lurralde Antolamendurako batzordearen txostena jaso ostean.

### KULTURA ONDAREAK EZEZKOA

Zine areto zaharra Santa Kurtz kalearen eta Herriko Plazaren artean dago, Erdigune Historikoaren Birgaitze Plan Bereziak mugatzen duen eremuan, hain zuzen. Plan horren arabera, eremu horretako eraikinak ezin dira bota, ezta moldatu ere. Horregatik, EHBPB aldatzea erabaki zuen Udalak, 2004ko abenduaren 27an egindako osoko bilkuran.

Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako batzordean eman zuen Udalak horren berri. Aldundiak oniritzia eman aurretik Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondare Sailari txostena eskatu



Abuztuan bertan bota gura zuten zine areto zaharra, baina lanak atzerapenez hasiko dira, Aldundiak ez duelako baimenik eman.

zion, kultura ekitaldietarako erabiliko delako eraikin berria. Sail haren erantzuna ezezkoa izan zen, hau da, eraikina bota beharrean eraberritzea proposatu zuen. Bestalde, Aldundiari eskatu zion Aretxabaletako arau subsidiarioak aldatzeko tramiteak has ditzala.

Kultura Ondarearen txostena gomendioa besterik ez da, eta

*Eraikina bota  
beharrean  
eraberritzea  
proposatu zuten  
Kultura Ondareak*

erabakia Diputatuen Kontseiluak hartu behar du. Hark, baina, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako (EHLAB) batzordeak esandakoari jarraitzen dio, eta ezezkoa ematen badu ezin izango da zine zaharra bota.

### LURRALDE ANTOLAMENDURA

EHLAB hainbat kidek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzako eta

Aldundiko Lurralde Antolamenduetako ordezkariak, Udaleko ordezkariak eta txostenarekin zerikusia izan duten ordezkariak; kasu horretan, Kultura Ondareko teknikariak.

Uztailaren 22an bildu zen EHLAB, eta han izan ziren Arri txu Oliden alkatea eta Jose Mari Segovia Hirigintza Saileko teknikaria. Zine areto zaharra bota eta berria bertan egiteko behararren arrazoiak azaldu zizkieten aipatutako biek bildutakoei, eta Kultura Ondarekoek egindako txostena ez hartzeko kontuan eskatu. Azkenean, EHLABk agindu zien ez zuela ezezkorik emango.

Udala, orain, Aldundiaren oniritzia noiz helduko zain dago. Lanekin aurrera egiteko baime-na jasoko duelakoan dago alkatea, baina lanak atzerapenez hasiko dira, oraindik esleitu barik daudelako. Oniritzia jaso bezain laster egingo dute hori.

### IRALABARRIKO LOKALAK GERTU

Zine areto eta kultura etxe berria egin bitartean, bai Kultura Saileko teknikariak, bai bertan jarduten duten hainbat taldek Iralabarri plazan izango dute egoitza. Hainbat lokal egokitu ditu Udalak, eta dagoeneko gertu daude. Materiala eraman behar dute orain, bertan lanean hasteko: ordenagailuak, mahaiak, artxi-boak... Horretarako datarik ez dute zehaztu. Hala ere, eskulanak margo ikastaroak eta beste hainbat lan egiten duten taldeek Iralabarri plazan izango dute lekua.

# ETXEA

**Etxerako guztia eta opariak**

Etxeko garbitasuna – norberaren garbitasuna  
burdineria – idazmahaiko eta eskolako  
materiala – jostailuak – kristaldegia  
baxerak – koadroak – etab.

**Dena prezio ezin hobean!**

**Aretxabaletan:**  
Durana kalea 16

**Arrasaten:**  
Maalako Errebala 7



**FARMAZIENTXANDA**

ZAPATUA, 3  
FRAILLE, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 4  
FRAILLE, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

**TELEFONOAK**

**OROKORRAK**

- Almen ..... 943 71 49 07
- ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21
- Faxa ..... 943 77 18 54
- Basobio ..... 943 77 09 81
- Euskaltegia ..... 943 79 21 68
- Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62
- Industrialdea ..... 943 79 62 80
- Institutua ..... 943 79 79 00
- Kirio etxea ..... 943 71 26 28
- Kultura etxea ..... 943 71 10 27
- Gazteria saila ..... 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49
- Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40
- XZGunea ..... 934 79 94 44
- Liburutegia ..... 943 71 18 62
- Loramendi EE ..... 943 77 09 70
- Ludoteka ..... 943 79 05 81
- Markomunitatea ..... 943 79 30 90
- Muruxko ME ..... 943 79 93 74
- Musika Eskola ..... 943 79 36 50
- Osasun etxea ..... 943 71 19 59
- Oñatorra ..... 943 71 24 06
- Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42
- Pausokoa Haur Eskola ..... 943 77 03 77
- Postetxea ..... 943 79 28 31
- Basabeazpi ikastola ..... 943 71 21 18
- Taxi geltokia ..... 943 77 12 64
- Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62
- Udalzaingoa ..... 943 71 18 63
- Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**  
SOS Delak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:30  
Zapatutan: 20:00  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatutan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: GOROETA**  
Domeketan: 12:30

**ARKARAZO**  
Domeketan: 11:30

**GELLAÓ/IZURIETA/GALARTZA**  
Ez dago mezarik.

# Erreka osteko plan partzialari ezetza eman dio Foru Aldundiak


M.A.

**Diputatuen Kontseiluak abuztuaren 2an izandako batzarrean Aretxabaletako 2b sektoreko, hau da, erreken beste aldeko plan partzialaren behin betiko onespina etetea erabaki zuen. Errekurtsua aurkezteko denbora dauka Bruesa enpresa sustatzaileak.**

Udalak 2b sektorearen plan partziala aurkeztu zion Foru Aldundiari behin betiko onar zezan. Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak, baina, planaren aurkako txostena egin du.

**HUTSUNEA UBIDEAN**

Eusko Jaurlaritzak dioenez Ibai eta Erreken Ertzen Antolamenduko Sektorekako Lurrealde Planen ubidearekiko aurreikusitako atzeratzeak ez ditu errespetatzen Bruesaren urbanizazioak. Gainera, hondakin urek kolektorearekin daukaten lotura ez du ondo zehazten planak eta Deba ibaiko ubidearen ingurumena berreskuratzeko neurriak ere ez ditu jaso. Hala, Uraren Zuzendaritzaren txostenari jarraituta eta Lurrealde Antolaketa eta Sus-



ARTXIBOA

Apirilean egin zituzten zundaketak, baina orain atzerapenak izango dituzte lanek.


tapenerako diputatuak proposatuta, 2b sektoreko plan partzialaren behin betiko onespina etetea erabaki dute.

**ERREKURTSOA BILBON**

Errekaren beste aldean 428 etxebizitza egitea aurreikusita dauka Bruesa enpresa sustatzaileak. Horietatik 100 babes ofizialekoak izango dira, 232 aurrez fin-

katutako salneurria daukatenak eta gainontzeko 96 etxebizitzak sustapen askekoak. Hain zuzen, aurrez finkatutako salneurria daukatenak dagoeneko banatuta ditu enpresa sustatzaileak.

Foru Aldundiaren erabakia-ri errekurtsua aurkeztu ahal izango dio Bruesak, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen egoitzan.



## Pasabidea egiteko lanendako deia egin du Udalak

Saihesbidearen iparraldeko sarreran Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepidea zeharkatzeko pasabidea egin gura du Udalak, oinezkoendako. Lanek ia 217 mila euroko aurrekontua dute, eta egunotan bukatu da lanok egiteko eskaintzak aurkezteko epea. Bidegorria dagoeneko eginda dago, bai Aretxabaletari dago-kion alderdian, bai Arrasateri dagokionean, eta orain pasabidea bakarrik falta da, oinezkoak lasai ibil daitezen errepidea zeharkatu barik. / M.A.

**Aretz**  
Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Hanburgesak  
Pizzak  
Oilaskoak eta  
paellak eramateko

**Jou Diaz**  
Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**ZARAIA**  
**taberna**  
Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95



# Mutrikuren aurka jokatuta hasiko du denboraldia preferenteko taldeak

M.A.

Domekan jokatuko du preferentean dabilen UDAko taldeak denboraldiko lehen partidua, eta Mutriku izango du aurrez aurre Felix Recio zuzentzen duen taldeak. Iazkoa baino denboraldi lasaiagoa izatea gura du UDAko zuzendaritza batzordeak.

Orain dela hiru aste hasi zen preferenteko taldea entrenamendu saioetan; izan ere, gertu izan gura ditu mutil guztiak Felix Recio soraluzetarrak domekan jokatuko duten partidurako.

## HAINBAT IZEN BERRI

Taldea indartu guran hainbat jokalarik ekarri ditu Aretxabaleta Kirol Elkarteko zuzendaritza batzordeak. Jon Torres Mondratik itzuliko da, Hegoi Arrieta Ordizitik dator, Endika Cocho Donostiako Amara Berritik, Rober Alonso berriro hasiko da futboleko jokatzen eta Espinosa UDAko gazteen taldetik igoko da. Beste atezain bat ere ekarri dute: Soraluzen jokatzen ibili den Dani Galan arrasatearra.

Erik Gartzia eta Kepa Azkuek urrezko intsigniak jaso zituzten maiatzean, UDAko preferenteko taldean 10 urte bete zituztelako. Futbolari agur esango ziotela pentsatuko zuen batek baino gehiagok, baina jokatzen jarraituko dute biek. Kepak bigarren entrenatzailearen lanak bete-ko ditu Felix Reciori lagun egi-



Gogoz ekingo diote denboraldiari Felix Recioen mutilek domekan, Mutriku, jokatuko duten partiduarekin.

nez, baina behar izanez gero jokatuzera ere aterako da.

## DOMEKAN, MUTRIKUN

Domekan, irailak 4, Mutrikun hasiko du denboraldia preferenteko. Zuzendaritzak ez du helburu zehatzik jarri oraingoz, Jokin Antxia presidentearen esanetan beste taldeak ezagutzeko denbora behar dutelako. Hala ere, aurreko denboraldian pasatako larritasunik ez lukete pasatu nahiko.

Eta ondo hasi direla esan behar; izan ere, joan zen aste bukaeran Arrasate Hiriko Txapelketa jokatuz Aloña Mendi eta Mondra taldeekin. Bana berdindu zuten aretxabaletarrek oñatiarrek eta Mondrari, ostera, irabazi egin zioten (1-0). Hala, aretxabaletarrak izan ziren txapelketako garaile.

**ARETO FUTBOLA ETA 2. ERREGIONALA**  
Aurtengo denboraldian futboleko jokatzen duten bi talde berri

egongo dira UDAn, gainerako guztiarekin batera: bigarren erregionala eta areto futbola. Dagoeneko hasita daude entrenamendu saioak egiten biak. Gazteen taldetik datozen hainbat jokalarik eta futbola utzita zeukaten beste horrenbeste aretxabaletarrek jokatuko dute bigarren erregionaleko taldean. Entrenatzaile lanetan Xabi Gartzia eta Gorka Valle ibiliko dira, eta irailaren 18an hasiko dute denboraldia.

## LABUR

### Irailaren 13an hasiko da lanean karate taldea

UDAko karate taldeak irailaren 13an hasiko du denboraldia. 18:30ean elkartuko dira Kurtzebarri eskolan Odilo Vazquez entrenatzailea eta jokalarik guztiak. Lehenengo astean bi taldeek batera egingo dituzte entrenamendu saioak eta ondoren banatu egingo dira: 6tik 13 urte bitartekoak eta 13 urtetik gorakoak. Izena eman gura duenak Odilo Vazquezi egin diezaiola dei (656 70 17 37) edo entrenamendu saiora joan dadila.

### Jarduera berriak antolatuko dituzte kirol etxean

Abuztuan itxita egon eta gero dagoeneko zabalik dago kirol etxea, eta ohiko orduetara, 08:30etik 21:30era. Irailaren 19an jarriko dute abian ikasturtea, eta kirol jarduerak berriak eskainiko dituzte. Horren guztiaren berri emateko esku-orriak banatuko dituzte etxez etxe, eta hilaren 19a bitartean egongo da izena emateko epea zabalik.

Hainbat aldaketa egin dituzte, gainera, kirol etxean, eta orain, gimnasia egiteko gela bi daude: bata aerobik egiteko izango da eta besteak —txikiagoa— hainbat erabilera izango ditu. Masaje gela ere gertu daukate; txanda hartzeko deitu besterik ez dago.

## BASABE

### jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

## Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



## ANDRA MARI

### Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3 ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

## Karlos

### Harakina

Santa Kurtz 5  
Tel.: 943 71 25 54  
20550 ARETXABALETA

## BENGOA URDAITEGIA

### Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

## JAUSORO OSTATUA



Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61



## Hirusta Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA



### ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel  
Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya  
Arquero**



**ATREBENTZIAEZPADA/ Urtarrilleko aldatsa aitteketan daue sarri, eta irailien badau aldatsik?**



**ANTON VITORIA**  
Langillie



**MARI KARMEN ASTIGARRAGA**  
Langillie



**ROSA PLACER**  
Langillie



**JOSE ALBERTO DELGADO**  
Langillie



**MARTA SANCHEZ**  
Langillie



**TXEMA RUEDA**  
Langillie

Bai, zoezer bai: lanera bueltau biher, morala behien... Oporrak bukatutekuen hala izeten da. Umie aurten hasten da eskolan eta hamendik aurrera gastuek be gehixau izengo die.

Ez dakit, oin ikusi biher, baiñe pentsetan hasi ezkeru: oporrak bukatu die, umie eskolara bielketako danetik erosi biher eta morala lurrrien. Hortan, gaizki hasten gare, baiñe ohitu egin biher.


Bai, eta urtarrillekue baiñe gogorraue da oingue. Oporretan faten garenien gehiegikeriek egitten dittugu eta bueltan die kontuek. Urtarrillien baiño gehixau igerten dutzoule uste dot.

Bai, oporretan diru asko gastetan dou, eta gero bueltie lasai-lasai hartu biher. Ume txikiñe dauket ondionkan, baiñe gero eskolie dala, erropak diela, gastuek pillatuko jaku.

Bai, horixe, urtarrillekue baiño askoz gogorraue da, konparaketaik be ez dau. Oporretatik diru barik gatoz eta danetik erosi biher izeten dou, urtaro aldaketie be badauelako.

Bai, merkatarixok asko igeriten dou. Etxekoandrak keja izeten die liburuek eta erropak ordaindu biher dittuela esanaz, eta gauza merkiek erosi gure dittue, preziuei asko begiretute.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK ZUHAITZAK APURTUTA** Ez dakit zer egin diguten zuhaitz gaixook, baina azken hilabeteotan ez ditugu bakean uzten. Aretxabaletatik Arrasatera dagoen pasealeku berrian jarritakoak izan dira oraingoa apurtu dituztenak. Andramaixa inguruan izan zirela apurketok diote batzuek, baina orduan izan edo ez, aitzakiarik ez daukate. Errespetua zer den ahazten hasita gaude... / M.A.

**ORAINDELA3URTEARETXABALETAN**

**Larrinoko errepidea konpontzen hasi ziren**

Larrino auzora doan errepidea konpontzen hasi zen Foru Aldundiko Errepide Saila irailaren 6an. Bide bazterreko arekak garbitu eta konpondu zituzten lehenengo eta ondoren aglomeratua bota bideari. Behin konponduta Udalarari eman zion errepidearen ardura Aldundiak.



**ASTEKODATUA**

**13**

**LAGUNEK EMAN DU IZENA UDALTZAIN POSTURAKO**

Udaltzain lanpostua betetzeko deia egin zuen Udalak abuztuan eta 13 lagunek eman dute izena. Azterketak egiteko datak oraindik jarri barik daude. Hala, bost udaltzain izango ditugu herrian.

**BESTEKEESANA**

**Irudi pornografiko eta erotikoek gure desira piztu eta kitzikatzeko gaitasuna dute, baina hala ere, gure gizartean, bi kontzeptu horiek bereizteko ohitura nabarmena dago. Zergatik? Pelikula pornografikoak ikustea, film erotikoak ikustea baino zikinagoa da askoren ustez. (...)**

**"Sexmetraia 2005" lehiaketako film laburrak erotikoak edo pornografikoak diren norberak erabaki beharko du. Baliteke, baten ustez film denak erotikoak izatea, baina beste batentzako pornografiakoak izan daitezke, edo apika, bi kontzeptuen arteko nahasketa bat. Aukera izanez gero, zuzendari gazte hauen film laburrak ikus eta goza ditzakezu: zuk erabaki une horiek porno edo erotiko gisa bitiztea!**

**LARRAITZ ARANDO**  
Gaztetxulo/05-09-02

**HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga**



*Iraila*

**A**buztuko azken egunak alde batera itxi eta segituan sartu gare irailleko aldapa latzian. Ondio asko eta asko opor osteko sindrome horrek jota egongo die, urtetik urtera komentariro gehixau entzuten dielako honen inguruan. Egiza esan, ez dakit ze sindrome ete dan hobia opor ostekua edo aurrekua. Opor bezperatan gehixenok jota endrerauta egoten gare dana ondo ein ete dogun, zer biher ete dogun... Opor aurretik baina, ilusina izeten da nagusi, eta oin barrez, aurpegi goibelak baino ez die ikusten. Bardin da, ondo pasau ezkeru, aurrera!! Eta pasateko momentu on horreik beti goguen eduki!!

Iraila poliki poliki hastia komeni dalakuan nau, aurtenguak gogor itxuria dakarrelako. Akordau be ein barik gainian izengo ditugu bai Sanmiguel jaixak zein Kilometroak. Ondio hil hasieran gaz, baina egunak aurrera ein ahala

gerturatuko gare jai usainera, eta poliki poliki hasi baserritar erropiai hautse kentzen. Honei jai bixoi irailak berez izeten dituen gastuak gehitu ezkeru segituan hondua joko dau dagoeneko nahikue hustute dauen gure itxulapiku gaixuek.

Baina ze arraio, momentuan momentukua!! Kilometroen gainian, jada ez dau atzera bueltarik, oin erlojuak marketan dau denporia eta erlojupeko lasterketa bat izengo da hau egunau heldu bitartian. Asko larriketan hasita

egongo die ondio lan asko dauela egiteko ikusite, baine trankil hartu deigun. Gainera, danok edukiko dou gure apurra jarteko aukeria eta ia danon artien jai dotoria egiten dogun!!!

Azken lerrotxo honeitan herriko gazte bati besarkada bero bat bialketako aprobetxauko dot, zoritxarrez uztaila bukaeran albiste txar bat jaso geuelako. Beste barik, animo eta aurrera bolie Zuhaitz!!

**"Jaixei irailak berez izeten dituen gastuak gehitu ezkeru segituan hondua joko dau gure itxulapiku gaixuek"**



# Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a / 220. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Jon Berezibar • Otorala 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Etxabeak etxe bihurtzeko araudia aldatu du Udalak

JON BEREZIBAR

Abuztuko azkeneko osoko bilkuran etxabeen gaineko udal ordenantzari aldaketa batzuk gehitu dizkio udalbatzak. Horren arabera, eraikuntza eta etxebizitza berriek ere izango dute etxabeetan etxebizitzak eraikitze baimena.

Herriko etxebizitza aukera urritasunari konponbideak topatu guran dabil Eskoriatzako Udala. Ohiko etxebizitzaren prezioaren garestitzearekin bat, gero eta urriagoak dira eraikitze egoiak diren lursailak. Leku egokian ez egoteagatik erabiltzeke edota hutsik daudelako, askok etxabeetan etxebizitzak egiteko aukera ikusi dute orain. Alternatiba horrekin etxebizitza kopurua hazteko aukera legoke, eraikitze orubeak agortzen jarraitu barik. Udalez gain herritar askok ere etxabeak modu horretan erabiltzea pentsatu dute eta baimen eskaera ugari iritsi dira Udalera azkenaldian. Gainera, jakin duteenez, espekulazioa ere egon da etxabeetan egokitutako etxebizitza horien salmentan, eta horregatik



Azkenaldian espekulazio handia egon da bizitzeko egokitutako etxabeetan.

ordenantzan aldaketa egitea erabaki du udalbatzak. Aldaketa nagusiak eraiki berriak eta aurki jasoko diren etxebizitzaren etxabeen gainekoak dira. Alde batetik, bizitzeko egokitu ahalko diren etxabeek gune erresidentzialetan egon beharko dute nahitaz, baina metro koadroko prezioa ez da 900 euro baino gehiago izango.

Bigarren aldaketa litzateke lau urte baino gutxiago duten eraikinen kasua. Horietan etxabeak egokitze aukera ikusten du Udalak. Intxaurtxueta auzoaren eta Gaztainadi kalearen kasua da hori. Bizileku berri horietako etxabe komertzialen %50ean emango du Udalak etxebizitzak egokitze baimena.

## Animaliak zaintzeko araudi berria kaleratu du Udalak

J.B.

Animalien edukitzea eta babesa erregulatzeko ordenantzan aldaketa batzuk egin ditu Udalak. Aldaketa nagusiak animaliak hirigunean edukitzearen ingurukoak dira eta txakurrak eta gainontzekoak etxean izateko baldintzak ere zehaztu dituzte.

Txakurren higie eta kaka lekuei dagokionez ere, hil amaierarako hainbat kaletan txakurrak libratzeko eremuak ipiniko

dituztela iragarri dute. Hiri-lur eta lur urbanizagarrietan ezingo da balkoi, garaje, soto edo antzekoetan zarata edo usaina ateratzen duen txakurrik eduki. Era berean, ezingo da lur mota horietako ortuetan ere txakurrik eduki. Salbuespen bakarrak base-rirenak, legalizatutako txabolenak edota landetxeenak dira. Gainontzekoetan debekuak bere horretan jarraituko du.

Horrekin batera, eta txakurra edo aberea legearen barruan izanda ere, beharrezko neurriak hartzeko eskatzen du Udalak. Horren-

bestez, lursailetan, txaletetan, terrazetan edo antzekoetan dauden txakurrek beti lotuta egon beharko dute, bestelako eremu hesiturik ez badaukate. Gai horren inguruan ere, datozen asteetan pipi-can eremuak ipiniko ditu Udalak herriko sei edo zazpi kaletan. Izan ere, debekatuta dago animalien gorotzak kalean uztea, eta animaliak ezinbestean libratuz gero jabearen arduraz litzateke eginkariak jasotzea. Hori egin ezean eta araudi berriaren arabera, isunak ipintzeko eskubidea izango du Udalak.

## Hil amaierarako gertu izango da Musika Eskola

J.B.

Irailean hainbat obra amaituko ditu Eskoriatzako Udalak. Beste askorekin, berriz, datozen asteetan hasiko da. Aurreratuenak Bake Epaitegi-ko, Helduén Hezkuntza Zentroko eta Musika Eskolako obrak dira. Beste atzerapenik ez badago hilabete amaieran amaituko dituzte.

Ikasturte berrirako hainbat obra gertu izan gura diru Udalak. Horregatik abuztuan ere aurrera jarraitu dute Musika Eskola eta haurtzaindegiko lanek, besteak beste. Lehenengoari dagokionez, lanak bide onetik doaz. Udalak espero du irail bukaera aldean zabaldu ahal izatea, ikasturte berria ohi bezala hasi ahal izateko. Instalazio horiek museo eskola zaharra zegoen tokian izango dira.

Bestalde, horrekin lotura handia dute udal haurtzaindegiko lanek. Izan ere, Musika Eskola zegoen eraikinean egingo dute haurtzaindegia, hau da, Oktogonoetan. Udalak dagoeneko esleitu ditu lanak: Gasteizko Aralan enpresak hartuko ditu bere gain. Kontratuaren arabera hil honen lehen hamabostaldian dira lanean hastekoak, esleipena abuztuan

egin zen-eta. Lanek behar bezala jarraitzen badute eta epeak betez gero, urtarrilerako amaitu gura du Udalak.

### OSASUN ETXKO LANAK ERE AURRERA

Obren beste gune garrantzitsuetako bat osasun etxeko lanak dira. Jakina den moduan hainbat udal zerbitzu irekiko dituzte han. Horien artean garrantzitsuenak Bake Epaitegia bada ere, ludoteka eta helduendako zentroa ere zabalduko dira eraikin berean. Hiru obren artean, hezkuntza etxeok eta Bake Epaitegiok doaz aurreratuen. Hil amaierarako amaitu gura dituzte bi lanak. Ludotekari dagokionez, ostera, esleitzeko daude obrak. Hala ere, aurki bukatu gura dute esleipen fasearekin eta irailean bertan hasiko dira egokitzen lan guztiak. Hori horrela izanez gero, hilabete pare baterako lana kalkulatzeko dute udal teknikariek.

Azkenik, aurrera jarraitzen du Santa Marina auzoan etxeak eraikitze egitasmoak. Hasierako faseetan dabilta oraindik, baina esleipenerako hiru enpresa aurkeztu dira: Jaurlaritzako Visesa, Gedi eta Arrasateko Arrasate S.A. hain zuzen ere. Hiru horietatik lanak zeinek kudeatuko dituen datozen asteetan jakingo da.



Arrasaten ipini zituztenen moduko pipi-can-ak ipiniko ditu Udalak.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Astroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oriati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

**OHARRAK**

**UDAL ZERBITZUETAN ERE OPORRETATIK BUELTAN**

Udaletxean eta gainontzeko udal zerbitzuetan oporretatik itzuli dira dagoeneko. Abuztuan, udaletxean goizez bakarrik ibili dira lanean, eta joan den eguaztenetik aurrera ohiko orduetan ibiliko dira lanean. Liburutegian eta Kultur Etxean, ostera, abuztuan geldituta egon ostean, joan den martitzena ezker dabilta lanean. Orduetgia 09:30etik 13:30era arte da.

**GAZTE TALDEA ATZERA LANERA**

Ikasturte berriari aurre egiteko jardunean hasi da dagoeneko Eskoriatzako Gazte Asanblada.

Udako geldialditxoaren ostean, domekan arratsaldeko seietan egingo dute lehenengo batzarra. Arduradunek, ohiko moduan, herriko gazte guztiei batzeko deialdia egiten diete, "denon laguntza beharrezkoa da-eta". Arduradunen hitzetan, aurtengoan ere gogotsu egingo diote ikasturteari, eta lan egiteko gertu daude.

**Ezinduei etxeko laguntza zerbitzua emateko deia**

J.B.

**Ezinduei edota beharra dutenei etxeko lanetan eta zainketan laguntzeko enpresa bat kontratatu gura du Udalak. Horretarako lehiaketa publikoa deitu du, kudeaketa enpresa batek bere gain hartu dezan lan hori. Zerbitzu horren onuradunak Udalaren irizpideen arabera aukeratuko dira.**

Udaleko Gizarte Laguntza Sailak etxeko lanetarako laguntzak kudeatzeko lehiaketa deitu du eta irailerdialdean amaituko da eskaintzak aurkezteko epea. Ezintasunak dituzten herritarrei etxeko lanetan eta higienean laguntza ematea izango da aukeratutako enpresaren egitekoa, eta gutxienez urtebeterako kontratua bete beharko du Udalarekin.

Onuradunendako, ostera, honako baldintza hauek ezarri ditu Gizarte Zerbitzuetarako Sailak: ezintasuna partziala edo erabatekoa izatea, betiere, egoera horrek ezinduaren autonomia eta

segurtasuna txikitzen edo bere harreman sozialetan eragiten badu. Multzo horren barruan sartzen dira gutxitu fisiko, psikiko eta sensorialak, buruko gaixotasuna dutenak (zentro batek hala gomendatuta) eta Udalaren oniritzia daukaten bestelako ezinduak.

**KALITATEARI LEHENTASUNA**

Enpresari dagokionez, Udalaren ustez abantailatsuen den eskaintza aukeratuko dute, irizpide ekonomikoa ez da erabakigarria izango. Dena dela, zerbitzuak ezingo du orduko 13 euroko prezioa gainditu. Guztira, 7.000 ordu bete beharko dituzte urtean; hala ere, kontratuaren iraunaldiaren arabera kopuru hori handitu edo txikitu egin daiteke. Horrela, proiektuaren kalitateak izango du pisu handien aukeraketan. Horrez gainera, gaur egun Udalarendako lan bera egiten dabilzan langileak kontratatzea ere hartuko dute aintzakotzat. Hala ere, lehiaketa irabazten duen enpresak bere gain hartu beharko du kontratazio guztia.

**Dorleta eta Santa Anako lanak dagoeneko abian**

J.B.

**Herriko bi auzo nagusietako berrurbanizatze lanak urte amaierarako bukatu gura dituzte. Santa Anakoak dagoeneko hasita daude eta bide onetik doaz. Dorletakoei dagokionez, oraindik esleitu barik daude, baina kudeaketekin hilabete amaierarako amaitu gura du Udalak.**

Datozen hileotan, lanak direla-eta, aldaketa handiak izango dituzte Dorleta eta Santa Ana auzoetan. Auzo bietan urbanizazio lanak egingo dituzte, eta urte amaierarako izan gura dituzte bukatuta.

Santa Ana auzoko lanak dira dagoeneko hasita daudenak, eta Udalak aurreikusitako moduan doaz obrak. Auzo horren kasuan, gune osoaren berrurbanizatzea

egingo dute, eta falta diren lanak dagoeneko onartu eta esleitu ditu udalbatzak.

Aurreikuspenak bete eta garapena egokia bada, urte bukaerarako amaituta egongo dira Santa Ana auzoko lan horiek. Premia daukaten konponketak dira; izan ere, egoera nahiko arriskutsuan daude hango kaleak. Horretaz gain, auzotar asko kexatu dira, batez ere baranda bat dela-eta. Udalak dagoeneko kendu du aipatutako baranda.

**DORLETAKOAK ESLEITZEKO**

Dorletako lanekin, ostera, atzeratuta dabilta. Oraingo hilabetean dira esleitzekoak, baina oraindik ez dute lehiaketa publikoa deitu. Kudeaketa arintzeko eta lanak banatzeko asmoarekin, gai horrekin osoko bilkura berezia egin gura dute irail amaierarako.

**LABUR**

**Irailean hasiko da Udala herriaren hobekuntzarako herritarrekin bilerak egiten**

Azkeneneko bi urteetan egin den moduan, aurten ere irailean hasiko dira herriaren hobekuntzarako herritar taldeekin bilerak. Kalez kale eta auzorik auzo egin dituzte bilera horiek eta datozen bi urteetako hobekuntza lanen inguruko iritziak jaso gura ditu Udalak, herritarren partaidetzarekin. Horrela, 2006 eta 2007an egingo dira obren inguruko informazioa emango zaie auzoetako ordezkariari. Mantentze obrak eta kale konponketen gainekoak izango dira.

**Datorren asteko domekara arte jarraituko du kiroldegia udako ordutegiarekin**

Udako ordutegiak bere horretan jarraituko du datorren astean ere. Astean, goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara egongo da zabalik, zapatuetan hamarretatik arratsaldeko zortzietara; eta domeketan, berriz, 09:30etik eguerdiko 14:30ak arte. Irailaren 11raino jarraituko dute ordutegi horrekin.

Kantxari dagokionez, uztail amaieran amaitu zituzten konponketa guztiak. Zorua konpondu zuten uda hasieran, eta berniza lehorte eta gero, abuztuaz geroztik normaltasunez erabil daitezke barruko kantxa guztiak.

**Uraren eta zaborraren tasak borondatez ordaintzeko epea dagoeneko zabalik da**

Abuztu hasiera ezker zabalik dago urari, zaborrari eta estolderiari dagozkien tasak ordaintzeko epea. Irail osoan eta urriaren 10era arte izango da epea zabalik, eta kasu bakoitzari dagokion banku edo aurrezki kutzako kontu korrontean egin beharko da diru sarrera.

Zaborraren tasa urteko bigarren sei hilabeteari dagokiona izango da eta ur-hornikuntza eta estolderiakoa aurtengo bigarren hiru hilabeteakoa izango da.



**Eskoriatzako Hiria Trofeoa arratsaldean**


Aurreko urtean lortutako arrakasta errepikatu guran, aurten ere, gaur arratsaldean jokatuko da bigarren aldiz Eskoriatzako Hiria II. Trofeoa. Eskoriatzako Kirol Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuta du eta 19:30an izango da partidua. LEB ligako lehen eta bigarren mailetakoko taldeak etorriko dira aurten: Donostiako Bruesa GBC eta Palentziako Hormigones Saldaña. Partidu horrekin emango dio hasiera Eskoriatzako Kirol Elkarteak ikasturteari./J.B.



**MIRENTXU  
TABERNA**  
Kafe goxoa hartzeko  
Tel.: 943 71 41 67

**AZKOAGA  
ESTANKOA**

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura



*Gustora egoteko!*

Intxaurtxueta 8  
**ESKORIATZA**  
943 71 40 63



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko irailaren 2a / 161. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Su-gorrinaren eraginez, zenbait fruitu-arbola gaixo daude

U.M.

Azkoaga inguruan atzeman dituzte gaixorik dauden zuhaitzak. Ekainean konturatu ziren egoerarekin, eta analisiak egin ostean, lau zuhaitzi detektatu diote gaixotasuna; baina Udalak jakin badaki gehiago badaudela. Gaia aztertzeko bi batzar egingo dituzte datorren astean.

Su-gorrina gaixotasun latza da zuhaitzendako; kalte larriak eragin ditzake oso denbora laburre-

an: adarretan hasten da gaixotasuna eta apurka-apurka zuhaitz osora hedatzen da. Hala, gaitzak erasotako landareak hilabete gutxira ihartu egiten dira oso ehuneko altuan, hil egiten dira. Batez ere, sagarrondo, makatzondo eta irasagarrondoei eragiten die su-gorrinak (*Erwinia amylovora* bakteriak sortutako gaixotasuna da). Baina fruitu-arborei ez ezik, su-gorrinak mintegiei eta landutako nahiz landugabeko errosazeo sailei ere eraso diezaieke (landare apaingarri-

eta basa-landareei, esaterako).

Hala, bada gaixotasunari aurre egiteko bideetako bat da berrogeialdia ezartzea kilometro bateko gunean. Horrez gainera, inguruko zuhaitzekin lotutako prebentzio eta kontrol neurriak ere hartu beharko dituzte.

### DATORREN ASTEAN, BI BATZAR

Gauzak horrela, Udalak bi batzar egingo ditu datorren astean. Astelehenean eta martitzenean izango dira (hilak 5 eta 6). Hilaren 5eko batzarra Azkoagatik kilometro batera dauden guneetako auzotarrendako izango da, eurek dutelako arriskurik handiena. Besteak beste, gaixotasuna ez hedatzeko hartu beharreko neurrien berri emango diete Arabako Diputaziotik etorriko den aditu batek. Baita ere jakinaraziko diete zer egin gaixorik dituzten zuhaitzekin.

Hilaren 6an, berriz, gaiarekiko interesa duen edozein joan daiteke batzarrera. 19:00etan izango dira batzar biak, udaletxean.

### FRANTZIATIK ETORRITA

Kontuan hartzeko gaixotasuna da su-gorrina, batez ere Aramaion dauden sagarrondo piloa ikusita. Frantziatik sartu da Gipuzkoara eta handik etorri da gureganaino, mintegien bitartez.



Eskolaren ondoan dagoen espazio horretan egingo dute eraikin berria.

## Haurreskolarekin lotutako obrak lehiaketara

U.M.

**Haurreskola zerbitzua emateko eraikin berria egin behar dute, San Martin Eskolaren ondoan. Orain, eraikina eraikitzeko obrak lehiaketa irekira ateratu ditu Udalak.**

Hain justu ere, irailaren erdialdean bukatuko da eskaintzak edo proposamenak aurkezteko epea. Aurkeztutako eskaintzen artean aukeratu beharko du Udalak ego-

kiena. Eta gero, horren arabera hasiko dira obrak egiten.

Aurreikusitakoaren arabera, eta guztia bide onetik badoa, Gabonak baino lehen hasiko dira San Martin Eskolaren ondoko eraikin berria egiten.

Lehen esandako moduan, asmoa da eskolak Haurreskola zerbitzua eskaintzea eraikin berri horretan. Hau da, laster, 0 eta 2 urteko umetxoak ere hartu ahal izango dituzte San Martin Eskolan.



Azkoagatik kilometro batera dauden zuhaitz eta landareak zaindu beharko dituzte.

## Gazte-lokalen zaintzarekin bueltaka segitzen dute

U.M.


Pare bat astean itxita izan eta gero, uztailean bertan zabaldu zituen Udalak gazte-lokalak. Edozelan ere, oraindik lokalekin lotutako gai asko dituzte argitzeko Udalak eta gazteek; esaterako, lokalen garbitasuna edo lokalen arduradunak zehaztea. Bide horretan, batzarrak egingo dituzte.

Alkateak esan digu Aramaioko gazte taldeak ondo funtzionatzen duen arren, ez dutela asmatu, ez Udalak ez gazteek, gazte-lokalen funtzionamendu egokiarekin.

Hala, lokalek ondo funtziona dezaten eta bestelako arazorik gerta ez dadin, Udala eta gazteak batzarrak egingo dituzte, bide horretan segituko dute.

### GAZTEEN PROBLEMATIKA AZTERGAI

Bestalde, gazteekin lotuta, alkatetako jakinarazi digu Zuiako Koadrila gazteen problematika aztertzen ibili dela herriz herri, baita Aramaion ere. Orain, emaitzak eskuartearen, asmoa da Udaleko ordezkariak eta gazteek mahai bat eratzea atzemandako gabeziei aurre egiten hasteko. Irailean bertan hasiko dira lanean.



Jaien ostean itxi egin zituzten gazte lokalak; hil bukaeran zabaldu zituzten ostera.

## LABUR

### Nazioarteko abesbatza, datorren astean

Urtero moduan, Abesbatzen Arabako Nazioarteko Jaialdiaren txanda da oporren ostean. Egitasmo horren barruan kontzertuak egingo dituzte datozen egunotan Arabako zenbait herritan. Tartean, Aramaion saio bat egingo dute. Eta datorren martitzenean, hilaren 6an izango da hori. Hain justu ere, Puerto Ricoko abesbatzak egingo du kontzertua, 20:30ean, elizan. 30 bat lagun etorriko dira. Orfeón Caribeño de San Juan da taldearen izena.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaizntza (Arrasate)	943 79 71 99
Curutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirodegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuia: Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzotako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behariko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**BABES OFIZIALEKO ETXEA**

Udalak egin zuen azkeneko osoko bilkuran zera jakinarazi zuten: Pedro Inazio Barrutia kalean eraiki behar dituzten 44 etxebizitzaren zozketa azaroan egingo dutela. Hain justu ere, azaroaren 10ean izango da, 12:30ean; lekua zehazteke dago oraindik, baita bestelako xehetasunak ere.

**KZGUNE, DATORREN ASTEAN**

Aramaioko KZGuneari ere bukatu zaizkio oporrak eta dagoeneko iragarri dituzte irailarako hitzorduak: hilaren 5ean eta 19an zabalduko dute, 09:00etatik 13:00etara.

**CARLOS SOBERAREN SAIORA**

Joan den eguaztenean, 20 aramaiotar EITBko *Date el Bote* programan izan ziren, ikusle moduan. Goizean Aramaiotik irten eta arratsaldeko lehen ordura arte izan ziren Miramonen. Carlos Soberak aurkezten duen programa grabatzeaz gainera, han bazkaldu zuten eta hango instalazioak erakutsi zizkieten aramaiotarrei. Alaiak elkartearen bitartez egin dute bidaia.



Bisitari askok parte hartzen du Marixeka Egunean, batez ere eguraldiak laguntzen badu.

**Guztiak gonbidatuta Marixeka Eguneko jaira**

U.M.

**Guztia gertu dute Marixekan domekako ospakizuna eta gonbidatuak hartzeko. Ohi moduan, eguerditik iluntzera arteko egitaraua prestatu dute, erromeria eta guzti.**

Hain justu ere, 12:00etan hasiko da Marixeka Eguna; meza esango du Emilio parrokoak. Horren ostean, herriko dantza taldeak saioa egin-

go du, edo behintzat horixe da antolatzaileen asmoa. Ikuskizuna eta gero, Marixekara joan diren guztiek izango dute dantza egiteko aukera, Maria eta Itziar Gardokiren musikarekin. Urteroko bazkideen bazkariak ere ez du kale egingo (14:00etan); eta bazkalostean musikak jarraituko du. Horrez gainera, 17:00etan Gorritiren animaliak ibiliko dira eta haren ostean erromeria izango da berriro, iluntzera arte.

**Arexola auzoko lanak bukatzeaz daude**

U.M.

**Oporretan kanpoan ibili garenok alde handia igarri dugu Arexola auzoan; izan ere, lanek abiada handia hartu dute eta dagoeneko auzoa itxuraldatuta dago erabat.**

Zoladuratik hasi eta elizako ormentaraino. Guztia ipini dute berri-berri Arexolan. Uztaila bukaera-

tik hona dezente aldaketa handia egin du auzoak. Bestelakoan artean, iturri berria ipini diete lehen aska zegoen lekuan. Elizarako eskailerak berriro dituzte, eta eliza azpiko pareta txukundu egin dute. Hori bai, oraindik azken xehetasunak falta zaizkie, esaterako, elizaren kanpoko zoladura. Edozelan ere, Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digu laster direla guztia bukatzekotan.



Auzoan zoladura aldaketa eta hormaren berrikuntza igartzen da gehien.

**Suhiltzaile zerbitzua ezartzeko proiektua**

U.M.

**Udalak egindako eskaeren ondorioz, Arabako Diputazioa aztertzen dabil Aramaion suteak ekiditeko zerbitzua ipintzeko proiektua. Gaur egun, Aramaion suhiltzaile gabezia dute eta Udalak ahalegin berezia egin du herrirako suhiltzaile zerbitzu dezentea eskuratzeko.**

Oñatiko zein Gasteizko suhiltzaileak urruti daude Aramaiotik; legeak ezarritako 20 minutu baino gehiago behar dute batako zein besteak Aramaioko dei bati erantzuteko. Horregatik, aspal-

ditik ibili da Aramaioko Udala suteei aurre egiteko plan berri baten eske Diputazioari. Eta orain, Diputazioak jakinarazi du UCEIS (Unidad Comarcal de Extinción de Incendios y Salvamento) izeneko unitatea Aramaion sortzeko proiektua aztertzen dabilzala.

Horren arabera, Aramaiok suteak amatzeko unitate bat izango luke, gutxieneko zerbitzuak, alegia. Tartean, suhiltzaile profesional bat izagno litzateke eta eta harekin lanean jarduteko boluntarioak heziko litzukete. Edozelan ere, esandako moduan, oraindik proiektua besterik ez da eta osatzeko dago.

**LABUR**

**Aramaioko Kurtzeta Gain Saria jokatu dute bihar arratsaldean**

15:30ean hasiko da txapelketa. Tiroketa probintziala izanda, interesa duen edozeinek parte har dezake (60 bat etorri izan dira beste urte batzuetan). Parte hartzeko, 20 euro ordaindu behar dute tiratzaileek, 15 bazkideek. Txapelketa 15 platerretara izango da. Eta sarien artean, gutxienez 15 urdai-azpiko gertu dituztela jakinarazi digute antolatzaileek, Kurtzeta Gain elkarteak.

www.cuadrillazuia.com

**Zuiako Koadrilak gidaliburu berria**

Zuiako Koadrila osatzen duten sei udalerrien eta inguruen gaineko informazio zabala batu dute gidaliburu berrian. Mapa eta guzti, kanpotik datorren edozeinendako informazio baliagarria, interesgarria eta erabilgarria emateko gida da: biztanle kopurua, kokaleku interesgarriak, jaiak... Hala, koadrilako udaletxeetan banatu dute gida berria, interesa dutenek eskura izan dezaten. Aramaiora ere iritsi da. /U.M.



# Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a / 17. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtelai • Otalora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelaigoiena.com • Lege gordailua: SS483/05

## Beste lasterketek trabarik ez egiteko, Gatzagakoa, Ama Birjina Egunean


XABIER URTZELAI

Dorletako Ama Txirrindulari Elkartekoek lasterketa domekatik egubakoitzera, hilak 9, aldatzea erabaki dute, jaieguna dela aprobetxatuta. Gainera, egutegiari begira ibili dira, eta asteburu horretan lasterketa bat baino gehiago izango da.

Besteak beste, Elorrion eta Goierri aldean egingo dituzte txirrindulari lasterketak, eta hitzordu horiek trabarik ez egiteko Gatzagako proba egubakoitzera aldatzea erabaki dute, Ama Birjinaren Eguna (09:30ean). Alberto Altubek eman dizkigu argibideak: "Hainbat lasterketa egun berean jarriz gero txirrindulari gutxiago etorriko lirake. Gainera, Goierriko lasterketa Euskadiko Txapelketarako puntuagarria da, eta uste dugu aurrealdean ibiltzeko aukerakin dabiltzanak joango direla hara. Gainera, talde bakoitzetik zazpi lasterkarik baino ezin dute lasterketa horretan esku hartu, eta guk ez daukagu horrelako mugarik. Gatzagako 27. lasterketa parekatua izango dela aurreikusten dut, eta hori ere erakargarria da".

### KALE EGINGO EZ DUTENAK

Ibilbideari dagokionez ez da aldaketarik izango. Horrek esan gura du lasterkariek birritan



Joan den urtean, Orbea-Olarra taldeko hiru lagun batera iritsi ziren helmugara; Gorka Amurizak gurutzatu zuen helmuga lehen.

igoko dutela Gatzagara. Eta jaieguna izanda Albertok jende dezente gerturatuko dela uste badu ere, dagoeneko badaki nortzuek ez duten kale egingo: "Lasterketa egiten hasi ginenetik Raflek ez du kalerik egin. Gainera, bitxikeria modura esan, sari berezia egoten dela Gatzagako iturrira lehenengo iristen

denarendako, eta sari hori Raflek berak jartzen du, bere poltsikotik; bitxikeria hori dagoeneko ohitura bilakatu da. Eta seguru nago Etxebarría argazkilari oñatiarrak ere ez duela kalerik egingo, urtero etortzen da-eta argazkiak ateratzera".

23 urte azpiko eta elite mailako 80 bat gaztek hartuko dute

esku egubakoitzeko proban. Denboraldiaren azken txanpan, Gatzagako maldek berehala apurtuko dute tropela, eta mendiko saria eskuratzeko ahalegina egingo du batek baino gehiagok. Indarrak gorde beharko dituzte, baina, proba herrian amaituta bigarren igoerak erabakiko duelako lasterketa.

### LABUR

#### Gero eta atzerritar gehiago etortzen da abuztuan

Aurtengo abuztuan turismoak ez du behera egin Gatzagan, ezta gutxiago ere. Herriko ostatuak beteta egon dira, eta Gaztainuzketan esan digute inoiz baino atzerritar gehiago izan dituztela: "Etxe batzuk autobidean lanean edo AHT-ko ikerketak egiten dabiltzanek alokatu dizkiegu, eta gaitzakoak turistek hartu dizkigute. Gainera, orain arte Madrilgo edo Kataluniako jendea etorri den moduan, aurtengo atzerritar asko izan da: italiarrak, argentinarrak...".

#### 217.850 euroko aurrekontua obrak egiteko

Aikia eraikuntza enpresak 217.850 euroko aurrekontua izango du herriko azpiegiturak berritzeko egingo dituzten obretarako. Oraingo hilean hasiko dituzte urarendako, gasarendako eta saneamendurako hodi berriak sartzeko lanak, eta horrekin batera jarri gura dituzte ur-hargune berriak. Lanok aprobetxatuta, goialdeko errepide zatia ere zabaldu gura dute, eta autobus geltokia ipini.

## Rockari eskainitako gaua izango da egubakoitzekoa

X.U.


Joan den urtean moduan, datorren egubakoitz gaua ere rock gaua izango da. Egun horretan oheratuko dira gatzagarrak beranduen, gaueko ordu txikietan amaituko da-eta kontzertua.

23:00etan (puntualak badira) hasiko dira Gatzagako gazteek aukeratu dituzten taldeak jaiak animatzen. Udalekoak aspaldi

elkartu ziren herriko gazteekin, eta aurtengo rock emanaldira-ko zein talde gura zituzten aukeratzeko eskatu zieten. Eta, gazteek Arian Rock, 23F, Show Business eta Malenkonia taldeak aukeratu dituzte, musika jaialdi txukuna antolatu eta ibarretik ikusleak erakarriko dituzten esperantzarekin. Akaso, aipatutako azken taldea izango da ezagunena. Besteak beste, Danbaka musika lehiaketan ikusi dugu Oñatiko taldea.

### PUNK GUTXIAGO, ETA ROCK GEHIAGO

Joan den urteko kontzertuarekin alderatuta, badirudi aurtengo jaialdian rockak presentzia handiagoa izango duela, joan den urteko talde gehienak Punk Oi! estilotik gertuago zeuden-eta (Kontamina ke algo keda, Enboscada, Golpe de Estado eta Never Surrender). Aurtengo berriz, doinu gogorak eta melodikoak tartekatuko dituzte, eta Malenkonia da horren adibideetako bat.



Malenkonia talde oñatiarra, Danbaka musika lehiaketan.



## OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

# "Hankek duten garrantziaz ez gara jabetu oraindik; oinak zaintzea bizi kalitatea hobetzea da"

**A**retxabaletan podologiako klinika bat zabaldu berri du Done Larrea aretxabaletarrak. Dagoeneko hiru hilabete daroa bertan lanean.

### Duela 3 hilabete zabaldu zenuen podologia klinika...

Bai. Herrikoa naiz, eta hemen horrelako klinikarik ez zegoela ikusirik animatu nintzen zabaltzera. Aretxabaletarrontzat herrian bertan horrelako zerbitzu bat edukitzea gauza positiboa dela iruditzen zait. Aurretik, baina, Bartzelonako Unibertsitateko klinikan ibili nintzen podologo lanetan eta ondoren beste lagun baten kontsultan. Orain, berriz, hemen, oso gustura nago.

### Garai baten kallistarengana joaten ginen... Orain podologoak daude. Baina zer da podologo bat?

Podologia hanketako problemenez arduratzen den profesionala da. Oinetan eduki ditzakegun edozein gaixotasun eta anomalia diagnostikatu, tratatu eta prebenitzen dituen profesional sanitarioa da. Ez da garai bateko kallista soilik; gaur egun gogortasunak, kailuak eta azazkaletako arazoak tratatzeaz gain, beste funtzio batzuk ere betetzen ditugu podologok, esaterako: sortzetiko malformazioen zuzenketak (jaiotzatik dauzkagun oin lauak, kabuak, balgoak...), ortopedien preskripzio (agindutako plantillak) eta beraien jarraipena, ultzera, infekzio eta beste oinetako gaixotasunen tratamendua. Jendeak pentsatzen duena baino zerbitzu gehiago eskaintzen ditugu podologok.

### Zein adinetako edo eratako jendea joaten da zuengana?

Gaur egun podologoarengana edozein adinetako pertsonak hurbiltzen dira: kirolariak, haurrak, adineko jendea, diabetikoak... Baina adineko pertsonak dira batik bat premia ikusten dutenak eta sarri-sarri bisitatzen nautenak. Gaur egun oraindik ez gara jabetu hankek duten garrantziaz, eta problemak ematen edo mina hasten zaigunean joaten gara podologoarengana. Beraz, haur, gazte eta kirolarietan sor daitezken arazoak prebenitzea oso garrantzitsua da, gaitza gainean dugunean problema aurre egitea zailagoa da. Diabetikoek, berriz, arreta handia izan behar dute oinekin, konplikazio ugari izan baititzakete. Haiei, normalean, sendagileek informatu eta guregana etortzeko gomendatzen diete.


### Podologia izateko zer formazio izan duzu?

Podologiako ikasketak unibertsitateko ikasketak dira, diplomatura bat da. Nik Bartzelonan egin nituen ikasketak hauek, UBN, eta bertako klinika unibertsitarioan ere aritu nintzen lanean hasiera baten. Baina gaur egun, unibertsitateko ikasketekin ez da nahikoa, egunetik egunera tratamenduak, materialak, teknikak... aldatuz doaz eta ondo informatuta egotea garrantzitsua



Done Larrea kontsultan.

**"Haur, gazte eta kirolarietan sor daitezken arazoak prebenitzea oso garrantzitsua da, gaitza gainean dugunean problemari aurre egitea zailagoa da"**



Adin askotariko jendea pasatzen da klinikatik.

da. Horregatik, kongresu, kurso eta masterrak antolatzen dituzte urtean zehar, eta hauetan ere parte hartzen dut, atzean ez geratzeko. Bestalde, podologo batek bere aktibitatean aritzeko kolegiatuta egon beharra dauka, eta horregatik Euskal Herrian podologo elkargo propioa daukagu.

### Hainbat esparru daude zure klinikan. Zer dela eta?

Bai. Nire kontsultan egiten dudan aktibitatea bi zatitan banatuko nuke: alde batetik kiropodiak egiten ditut, hau da, gogortasunak eta kailuak kendu, gariak eta onddo edo mikosi arazoak tratatu, azazkaletako edozein arazori soluzioa eman... Hau guztiau egiteko besaulki mugikorra eta tresna edota dagokion ekipamenduarekin jantzitako gela bat daukat. Bestalde, oinez ibiltzerakoan izan dezakegun edozein arazo edo jaiotzatik eduki ditzakegun malformazioak diagnostikatu eta tratatzeko beste gela bat daukat. Bertan azterketa biomekanikoak egiten ditut, kamera batzuk eta detektoreak dituen aparatu eta ordenagailu baten laguntzarekin. Beraz, egiten ditudan diagnostikoak informatizatuak direla esan daiteke.

### Eta arazoa diagnostikatu ondoren?

Arazoa diagnostikatu ondoren tratamendua behar izaten da: silikonazko ortesiak batzuetan, beste batzuetan plantillak... Tratamendu hauek ere nik egiten ditut kontsultan bertan. Tratamendu hauek pertsona bakoitzari egokitutakoak izaten dira, guztion oinak ez baitira tamaina eta forma berekoak; beraz, tratamenduak ez dira guztientzat material berekin egindakoak izaten, neurrirra egindakoak izaten dira eta bakoitzak duen arazoari konponbidea emateko dagokion materiala erabiltzen dut. Horretarako tailer txiki bat daukat.

### Hainbat material aipatu dituzu...

Bai, gaur egun merkatuan plantillak egiteko material ezberdin asko daude, bakoitzak bere ezaugarri eta dentsitateak ditu. Kirolarientzat, esaterako, taloian hasierako txokea disipatzeko material bat jar daiteke eta aurreko aldean inpulsoarako beste material bat. Beste material batzuk bigun-bigunak dira, indargetzerako balio dutenak. Plantillak forratzeko ere mota askotako azalak daude gaur egun.

### Erabiltzen diren oinetakoek zerikusirik izango dute hanketako arazoekin.

Jakina! Modak eragin handia dauka. Nik aholku bat emango nuke gustura: ahal den eta oinetako erosoan erabili eta modako takoi edo punta luzedun oinetakoak erabili nahi duenak joan-etorrietarako bakarrik izan dadila, denbora laburrerako. Bestalde, enpresetan erabiltzen dituzten segurtasunezko zapatekin ere askok makina bat arazo dituztela konturatu naiz, baina hori aztertu egin beharko litzateke. Nik uste dut oinak zaintzea bizi kalitatea hobetzea dela; beraz, zain ditzagun!



**Azterketa biomekanikoak**  
Diagnostiko informatizatuak  
Plantillak  
Silikonazko ortesiak  
Kirol podologia  
Haur podologia  
Oin lauak, kabuak,...

**Kiropodiak**  
Gogortasunak  
Papilomak  
Mikosiak, onddoak  
Azazkal arazoak

**Diabetikoentzako prebentzioa**

**Ezinduentzako ethez etheko zerbitzua**

belorrieta 10 behea  
tel.: 943 79 16 45  
aretxabaleta



# berbetan

HIZKUNTZ ESKOLA

## INGELESA FRANTSESA

2005-06 IKASTURTEA

MAILA ETA ADIN GUZTIAK

MATRIKULA EPEA IRAILAREN 5ETIK 27RA

BULEGO ORDUTEGIA: 16:30ETIK 19:00ETARA

BERBETAN HIZKUNTZ ESKOLA BELDORRIETA, 4 20550 ARETXABAETA TEL./FAXA: 943 79 00 69

### Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



**Zoru aukera zabala**  
Tarimak  
Parket flotatzaileak, bernizatuak eta  
estratifikatuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE**  
AROTZEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
610 884 020



## ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA

